

Zuzenbideko Gradua

Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbideko
Gradu Bikoitzeko Gradu Amaierako Lana

HERRIEN SEGREGAZIOA: Usansolo kasuaren azterketa juridikoa

2018-2019ko ikasturtea

Egilea: Oihane Apellaniz Goienola

Zuzendaria: Iñigo Urrutia Libarona



Bilbon, 2019ko otsailaren 15ean

AURKIBIDEA

LABURDUREN ZERRENDA	3
LABURPENA	4
RESUMEN	4
ABSTRACT	5
1. SARRERA	6
2. LAN HONEN HELBURUA	8
3. METODOLOGIA	9
4. MARKO TEORIKOA	10
4.1. UDAL LURRALDEA	10
4.1.1. Udalerriaren elementu edo osagaiak: lurraldea	14
4.1.2. Udal lurraldearen aldaketa kasuak: Segregazioa	16
4.1.2.1. Eraentza orokorra	16
4.1.2.2. Bizkaiko segregazioen bilakaera	18
4.2. UDAL LURRALDEAREN ALDAKETEI BURUZKO ESKUMENAK	20
4.2.1. Toki Administrazioari buruzko eskumen banaketa Estatua eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean	21
4.2.2. Toki Administrazioari buruzko eskumen banaketa Erakunde Erkideak eta Foru Erakundearen artean	23
4.3. SEGREGAZIOARI BURUZKO ERREGIMEN JURIDIKOA	25
4.3.1. Espainiar Legedia	25
4.3.1.1. Toki Erregimenaren Estatutuko oinarrien 41/1975 Legea, azaroaren 19koa	25
4.3.1.2. Toki Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koa	27
4.3.1.3. Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunaren 27/2013 Legea, abenduaren 27koa	28
4.3.2. Bizkaiko Foru Arauak	30
4.3.2.1. Bizkaiko Udal mugarteen 1993/8 Foru Araua, uztailaren 8koa	30
4.3.2.2. Bizkaiko Lurralde mugapenen 2012/9 Foru Araua, abenduaren 5koa	36

4.3.2.3. 6/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, Bizkaiko Lurralde mugapenei buruzko 2012ko abenduaren 5eko 2012/9 Foru Araua aldatzen duena.	40
5. USANSOLOREN DESANEXIO KASUA	41
5.1. 90. HAMARKADAN EMANDAKO PROZESUAREN HASIERA.....	41
5.2. PROZESUAREN BERPIZKUNDEA	43
5.3. PROZESUAREN BILAKAERA.....	44
5.3.1. Batzorde Paritarioaren eraketa	46
5.3.2. Usansoloren mugak ezartzea.....	49
5.4. PROZESUAREN ETORKIZUN HURBILA	53
6. ONDORIOAK.....	54
7. BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK.....	57
8. TAULA, GRAFIKO ETA IRUDIEN AURKIBIDEA.....	65

LABURDUREN ZERRENDA

AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia.
BAAE	Bizkaiko Administrazio Auzien Epaia.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
EIN	Estatuko Institutu Nazionala.
EK	Espainiako Konstituzioa.
EKI	Estatuko Kontseiluaren Irizpena.
ETEL	Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea.
EUSTAT	Euskal Estatistika Erakundea.
FA	Foru Araua.
JAN	Justizia Auzitegi Nagusia.
LHL	Lurralde Historikoen 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremani buruzkoa.
KAE	Konstituzio Auzitegiko Epaia.
TEOL	Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea (erderaz LBRL).
UH	Usansolo Herria.
ZO	Zuzenbide Oinarria.

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan Usansoloren, egun Galdakaoren auzo den baina honen biztanleriaren portzentaje handi batek herri independente izatea aldarrikatzen duen segregazio prozesuaren azterketa juridikoa egin da. Azterketa horretarako, bai Espainia mailan bai Bizkaia mailan, udal mugarteen aldaketaren inguruko garapen legegile eta arautzailea aztertu da. Behin legegintza markoa zehaztuta, Usansoloren segregazio espedientean oinarrituz, segregazio prozesua aztertu da, 90. hamarkadan prozesua hasi zenetik, eman diren pausuak, negoziaketak eta arazoak azalduz. Azkenik, gaur egun segregazio prozesu honen egoera zelan dagoen adierazi da, honen alderdi ezberdinen eta etorkizunera begira eman daitezkeen pausuak zehaztu dira.

GAKO HITZAK: Zuzenbide lokala, udal lurraldea, lurralde aldaketak, segregazioa eta Usansolo.

RESUMEN

En el presente Trabajo de Fin de Grado se ha realizado un análisis jurídico del proceso de segregación de Usánsolo, actualmente un barrio de Galdácano en donde un importante porcentaje de su población reivindica ser independiente. Para el análisis, se ha estudiado el desarrollo legislativo y normativo sobre las alteraciones de los términos municipales elaborado tanto a nivel del Estado como de Bizkaia. Una vez definido este marco legislativo general, se ha llevado a cabo el estudio del proceso de segregación de Usánsolo a partir del expediente de segregación. Este análisis parte del proceso iniciado en la década de los 90, estudiando los pasos, las negociaciones y los problemas que ha habido en su desarrollo. Finalmente, se expone la situación en la que actualmente se encuentra el proceso de segregación entre las diferentes partes que intervienen en el mismo.

PALABRAS CLAVE: Derecho local, término municipal, alteraciones del término municipal, segregación y Usánsolo.

ABSTRACT

In the present Work, a legal analysis of the segregation process of Usansolo, currently Galdakao's neighbourhood where an important percentage of its population claims to be independent, has been carried out. For that purpose, the legislative and regulatory development on the alterations of the municipal districts elaborated both at the level of the state and of Bizkaia has been studied. Once this general legislative framework has been defined, the study of the segregation process of Usansolo from the segregation file has been carried out. This analysis starts from the process started in the 90's, studying the steps, the negotiations and the problems that have been in its development. Finally, the present situation in which the segregation process between the different parties that take part in it is exposed.

KEY WORDS: Local law, municipal district, alteration of the municipal district, segregation and Usansolo.

1. SARRERA

1978ko Espainiar Konstituzioak, boterea bertikalki hiru maila ezberdinetan banatzearekin batera (estatukoa, erkidegoarena eta lokala), antolakuntza sistema ezberdinen aniztasuna eta integrazioaren existentzia aitortu du. Hala ere, erregimen lokalaren eremuan Konstituzioak berak ez du gauza handirik esaten, are gehiago, eskumen bateratutzat hartzen du eta honen kompetentziaren, egituraren eta funtzioen erregimena Estatuko eta Autonomia Erkideetako legediaren bitartez arautu behar dela xedatzen du (148 eta 149. art.).

Ondorioz, SOSA WAGNER katedradunak dioenaren arabera, nahiz eta sistema federaletan, alemaniarren kasuan den bezala, toki administrazioak estatu kideen antolaketa atalak izan, Espainiaren kasuan ezarritako sistema bi mugen artekoa den heinean, nahiz eta udalerriek ezaugarri komun batzuk izan, hau lurralde bakoitzeko egoera bereziaren ondoriozko erregimen ezberdinak egotearekin bateragarria da¹.

Udalerrien lurralde aldaketaren kasuan beraz, erregimen lokalean barne biltzen den eremu bat izanik, eskumen banaketaren ondorioz, gaur egun Estatuko legediaren bitartez oinarritzko baldintzak zehazten dira, baina honen prozedurari dagokionez, bai Konstituzioak zein Toki Erregimenaren inguruko Legediak erkidegoetako legedira igortzen du.

FERNANDEZ TORRESen hitzetan “Aún hoy en día, la creación de nuevos Municipios es un tema que no parece estar bien visto o, si se quiere, tiene mala prensa.”². Are gehiago, SOSA WAGNER eta FUERTES LOPEZek baieztapen hori jurisprudentzia, Estatuko Kontseiluaren kontsulta lanen eta bibliografia gutxi izatearengatik ondorioztatu daiteke³. Gainera, legedi lokalaren tradizio historikoa udal mapa murriztea izan da, eta hau ez dator bat segregazioaren supostuarekin.

Gaur egun ere, Estatuko legegilearen helburua udal mapa horren atomizazioa gainditzea da eta hau 27/2013ko legearen bidez eta Gobernuak Bruselara bidalitako 2014-2017ko Jasangarritasun Programan islatzen da, zeintzuetan udalerrien bat egitea sustatzen den.

¹ Vid. SOSA WAGNER, F.; DE MIGUEL GARCÍA, P.; MARTIN MATEO, R. (1987). *Creación, supresión y alteración de términos municipales*, Madrid: Instituto de Estudios de Administración Local, 603 or.

² Vid. FERNÁNDEZ TORRES, J.R. (2003). *La creación de nuevos municipios por segregación*. Valencia: Tirant lo Blanch, 11 or.

³ Vid. SOSA WAGNER, F. y FUERTES LOPEZ, M. (2001). *Código de la Administración Local*, Pamplona: Aranzadi, 174 eta ondorengo or.

Autonomia Erkidegoek ere, segregazioa mugatzeko legezko baldintzak barneratu dituzte azken urteetan ezarritako arauetan. Hala ere, nahiz eta azken urteetan segregazioen olatua moteldu den, agregazioen kasuan dozena bat bakarrik eman izan dira 1984. urtetik⁴.

Euskal Herrian, segregazio gehien eman diren lurraldea Bizkaia da. Izan ere, Bizkaian banaketa politiko-administratiboaren prozesuaren erreformak tradizio zaharra dauka. Horrela, historikoki ohiko ereduaren anexioa zen, zeinaren bidez, biztanleria gutxiko udalerrria entitate berri baten mesedetan desagertu egiten zen, lurraldearen antolaketa politiko administratiboa antolaketa espazioaren behar berrietara egokitzeko helburuarekin. Baina, 1980. urteaz geroztik, alderantzizko prozesua jartzen da martxan, desanexioarena hain zuzen ere, zeinetan anexionatutako entitate lokalen berreskuratze historikoa gailentzen den⁵.

Horrela, Bizkaian Erandio, Loiu, Iurreta, Alonsotegi edota 2004. urtean emandako Ziortza-Bolibarren segregazioak nabarmenak dira⁶. Testuinguru horretan sortzen da Usansoloren Desanexio prozesuaren aldeko Batzordea, baina, arrazoi ezberdinen ondorioz, gaur egun, oraindik ere, ez da prozesuaren bukaera eman, oraindik ere prozesua lehen fasean aurkitzen baita.

⁴ Vid. BURGUEÑO, J.; GUERRERO LLADOS, M. (2014) «El mapa municipal de España. Una caracterización geográfica» *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 64. zk., 16 or.

⁵ Bizkaiko Foru Aldundiaren 1988ko txostenetik eratorrita, “Usansolo: udal bereizgarako ikerketa”, Hirilur enpresak egindakoa.

⁶ Nahiz eta guztiak desanexioak izan, legearen ikuspuntutik segregazio prozesua jasan dutenez, hemendik aurrera segregazio hitza erabiliko da, juridikoki horrela definitua dagoelako.

2. LAN HONEN HELBURUA

XIX. mendeaz geroztik, testuinguru historikoaren ezaugarri eta egoerekin bat datozen udalerriaren aldaketaren inguruko legedi ezberdinak egon izan dira indarrean. Hala ere, gaur egun, nahiz eta legegilearen helburua udalerrien arrazionalizazio izan eta beraz udalergi berriak sortzea baino, udalerrien bat egitea sustatu, badaude bai Euskal Herri mailan zein Bizkaian udalergi batetik bereiztu eta herri independente bihurtu nahi dutenak.

Lan honen helburua urteetan zehar segregazioaren aldeko ekimenak aurrera eramane dituen baina oraindik ere Galdakao herriaren parte den Usansolo auzoaren segregazio prozesuaren azterketa juridikoa egitea da. Ondorioz, Gradu Amaierako Lan honen helburu espezifikoak hurrengoak dira:

1. Usansoloren segregazio prozesuaren egoera gaur egungo testuinguru juridikoan kokatzea. Horretarako, udalerrien aldaketaren eskumen banaketa aztertu da, Estatu, Autonomia Erkidego, Lurralde Historiko eta Toki Administrazioak honen inguruan duten eskumena aztertuz. Behin eskumena zehaztuta, udalerrien aldaketaren inguruko legedia aztertu da, Espainia mailan eta Bizkaia mailan egon izan diren eta gaur egun indarrean dauden arauen azterketa eginez.
2. Gaur egun Bizkaian martxan dagoen segregazio prozesu bakarraren egoera aztertzea. Horretarako, Galdakaoko udalak duen Usansoloko segregazioaren espedientea aztertuko da, bertan dauden dokumentu eta txostenak analizatuz.

3. METODOLOGIA

Aurrez definitutako helburuak lortzeko xedearekin, erabilitako metodologiak bi alderdi izango ditu, udalerrien aldaketaren inguruan estatuko legediak eta legedi autonomikoak izandako bilakaeraren azterketa eta Usansoloren segregazio prozesuaren espedientea bateratuko direlako.

Ondorioz, lehendabizi udal lurraldeak eta bere elementuek historian zehar izandako eboluzioaren azterketa teorikoa aurkezten da, gerora udal lurraldearen aldaketen esparruan, toki administrazioaren inguruan Estatuak, Autonomia Erkidegoak eta Lurralde Historikoek dituzten eskumen banaketan sakontzeko. Behin eskumenak finkatuta, segregazioari buruzko erregimen juridikoa aztertuko da, eskumendunak diren entitateek azken urteetan xedatutako lege eta arauak sakonki aztertuz. Estatuko legediaren kasuan, udal lurraldearen aldaketen inguruan Toki Erregimenaren Estatutuko oinarrien azaroaren 19ko 41/1975 Legeak, Toki Erregimenaren Oinarrien apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak xedatzen dutena aztertu da, lege batetik bestera eman diren aldaketak azpimarratuz. Bizkaia mailan, Bizkaiko Udal mugarteen uztailaren 8ko 1993/8 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde mugapenen abenduaren 5ko 2012/9 Foru Araua eta azken hau aldatzen duen martxoaren 25ko 6/2015 Foru Araua aztertu dira, udal lurraldearen aldaketen inguruko prozeduran eman diren aldaketak nabarmenduz. Azkenik, Usansoloko segregazio prozesuaren hasiera, garapena eta gaur egungo egoera aurkezten dira, baita etorkizun gertura begira eman nahi diren pausoak.

Segregazio prozesua sakonki aztertzeko helburuarekin, Galdakaoko Udalarekin eta Usansoloren segregazioa bultzatzen duen Usansolo Herria elkarte politikoarekin bilerak egin dira. Galdakaoko Udalaren kasuan, segregazio espedientea aztertzeko bileran dokumentazio falta sumatu da, eta dokumentazio falta hori Usansolo Segregazio Batzordearen prestutasunaren ondorioz bete da, beharrezkoak ziren dokumentu guztiak ahalbidetu dituztelako. Bilera hauen bitartez, Usansoloko segregazioaren hasiera, garapena eta bidean izandako traben inguruko informazioa lortu nahi izan da.

Azkenik, legediaren bilakaeraren zein bileren bitartez lortutako espedientearen dokumentuen bidez lortutako informaziotik eratorritako ondorio multzoa aurkezten da.

4. MARKO TEORIKOA

4.1. UDAL LURRALDEA

Udalerriaren esanahia eta ezaugarriak historian zehar aldatzen joan dira ordenamendu juridikoan, garaian garaiko egoera politikoarekin batera eraldaketak jasan baititu. Horrela, SANCHEZ MORÓN⁷eri jarraituz, udalerriak, nahiz eta aurretik beste erakunde batzuk izan, 1812. urtean izan zuen lehen aldiz aintzatespen konstituzionala, izan ere, 1812ko Konstituzioaren 310. artikuluekin arautu zen udalerrri konstituzionala: “se pondrá Ayuntamiento en los pueblos que no lo tengan y en que convenga le haya, no pudiendo dejar de haberle en lo que por sí o con su comarca”⁷.

Udalerrri kontzeptu juridikoak hainbat aldaketa izan ditu, momentuko inguruabar sozial, kultural eta politikoak aintzat hartuz. Halaber, Konstituzioaz geroztik udalerrrien kontzeptua, Gobernu zentrala hierarkiaz behera, era zentralista batean xedatua izango da harik eta Primo de Riveraren diktaduran, 1924. urtean, Udal Estatutua⁸ indarrean sartzearekin udalerriei autonomia aitortu eta udal entitateei deszentralizazioa aplikatzen zaien arte. Estatutu honetako ekarpen garrantzitsuenak dira, besteak beste, entitate lokalei eskumenen eremua hedatzea, udalerrri landatarrak eta hiritarrak ezberdintzea, funtzio publiko lokala erreformatzea eta entitate lokal ezberdinak bereiztea, udalerrri mota ezberdinak existitzen direlako⁹.

Ondoren, Errepublika garaian, udalerrriaren kontzeptua ez da asko aldatzen, 1935ko Udal Legearen¹⁰ 5. artikuluen arabera “udalerritzat aitortzen da lege hau aldarrikatzean legez udalerrri bezala eratuak zeudenak.”. Hala ere, garai hartan udalerrriaren autonomia Konstituzioan, Toki Erregimenaren Oinarrietako Legean eta Udal Legean bertan errepikatzen da, alkateen hautaketa ezartzen da eta kompetentziak erregionalak izatera pasatzen dira.¹¹ Frankismo garaian, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 2 lege onartzen dira, 1945. urtekoa¹² eta 1953. urtekoa¹³. MORELL OCAÑAren hitzetan oinarrituta, legeak entitate lokalei autonomia deuseztatzen die, kompetentzien eremuan

⁷Vid. SÁNCHEZ MORÓN, M. (2011). *Derecho administrativo. Parte general*, Madrid: Tecnos Editoriala, 349 or.

⁸ Udal Estatutua, 1924ko martxoaren 8koa (Gaceta de Madrid 1924ko martxoaren 9koa, 69. zk.)

⁹ Vid. BARRANCO VELA, R. (1993). *Creación y segregación de municipios*, Madrid: Marcial Pons, 48-70 or.

¹⁰ Udal Legea, 1935ko urriaren 31koa (Gaceta de Madrid 1935ko azaroaren 3koa, 307. zk.)

¹¹ Azaroaren 19ko Toki Erakundearen Oinarrien Estatutuaren 41/1975 Legeko hitzaurrea, Estatuko Aldizkari Ofiziala, 4 or.

¹² Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea, 1945ko uztailaren 17koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1945ko uztailaren 18koa, 199. zk.)

¹³ Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea, 1953ko abenduaren 3koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1953ko abenduaren 4koa, 338. zk.)

Estatuaren esku hartze handia dago eta horren aurrean ez dago legezko defentsa garantiarik, ekonomia urritasuna dago eta honek guztiak udalerriak Estatuaren instrumentu soilak izatea egiten du¹⁴.

1975. urteko Toki Erakundearen Oinarrien Estatutuan¹⁵, udalerriak Administrazio lokalaren oinarritzko entitatetzat xedatzen dira, eta hauen inguruko definizio zehatz bat ematen da: “Los municipios son entidades naturales y constituyen estructuras básicas de la comunidad nacional” (Lehen Oinarriaren 2. Puntua). Hala ere, lege honek 3 urte baino ez ditu iraun indarrean, 47/1978ko Legearekin¹⁶ derogatu egiten delako. Gaur egun, 1985ko Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legean (TEOL)¹⁷ zehaztutako udalerrien kontzeptua dago indarrean, zehazki, bere 1. artikuluan definitzen dena, zeinaren arabera udalerriak Estatuaren lurralde-antolaketa oinarritzko erakundeak dira, eta herritarrek herri-arazoetan esku hartzeko hurbileneko bide, eta bertako giza taldeen berezko interesak autonomiaz erakundetu eta kudeatzen dituzte.

Udalerrien elementuei dagokionez, arautu diren elementu tradizionalak hiru izan dira: lurraldea, biztanleria eta antolaketa. Baina, nahiz eta urteetan zehar hiru elementu hauek osatu udalerria, bakoitzaren kontzeptuak historian zehar aldatzen joan izan dira, gizartea aldatzen joan den heinean. Horren adibide da biztanleriaren barnean auzotar eta egoiliarren artean eman izan diren bereizketak, izan ere, bereizketa hau 1975. urteko legera arte xedatua izan da. Baina, urte horretatik aurrera ezaugarri hau finkatzeko betekizun bat ezartzen da: udalerriko erroldan inskribatua izatea.

BARRANCO VELAren hitzetan, nahiz eta tradizionalki hiru elementuen multzoa izan udalerria “sin negar que cualquiera de ellos son indispensables no solo para el municipio, sino para cualquier *ente territorial*, hoy se podrían añadir otros, como por ejemplo la autosuficiencia financiera o capacidad económica.”¹⁸.

Azterketa honen ondorioz, esan daiteke udal lurraldeak edukitako garapen historikoaren ondorioz, 1812ko Konstituziora arte ez dituela gaur egun identifikagarri egiten dituen ezaugarriak. Horrez gain, aipatu beharra dago Kadizko Konstituziotik, Baionako Estatutua alde batera utzita, 14 Lege edo Udal Estatutu egon direla indarrean. Arau guzti

¹⁴ Vid. MORELL OCAÑA, L. (1974). “*La Administración Local*” en *la España de los años 70*, III. *Liburukia*. Madrid: Moneda y Crédito, 46 or.

¹⁵ Toki Erregimenaren Estatutuko oinarrien 41/1975 Legea, 1975ko azaroaren 19koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1975ko azaroaren 21koa, 280. zk.)

¹⁶ 47/1978ko Legea, Toki Erregimenaren Estatutuko oinarrien 41/1975 Legea indargabetzen duena, 1978ko urriaren 7koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1978ko urriaren 11koa, 243. zk.)

¹⁷ Toki Erregimenaren oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, 1985ko apirilaren 2koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1985ko apirilaren 3koa, 80. zk.)

¹⁸ Vid. BARRANCO VELA, R. (1993). *Creación y...* op. cit., 145 or.

hauek Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 1975eko Legean adierazten dira, ondorengo hurrenkeran: 1812ko Konstituzioaren Udal Erregimena, 1823. urteko Probintzien Gobernu Politiko-Ekonomikorako Legea, 1835eko Udaletxean inguruko Errege Dekretua, 1840 eta 1845eko Udaletxeen Legeak, 1856ko Udal Administrazioaren Legea, 1868ko Udalerri eta Probintzien inguruko Lege Dekretua, 1870 eta 1877ko Udaletxeen Legeak, 1924. urteko Udal Estatutua, 1935eko Udal Legea eta 1945, 1953 eta 1975eko Toki Erregimenaren Oinarria arautzen duten Legeak¹⁹. BARRANCO VELAren iritziz, beste eremu publiko zein pribatuetan garatutako oinarrizko legediak ez ditu hainbeste lege testu zein aldaketa izan, eta honen arrazoi nagusia, XIX. mendeko ezegonkortasun politikoa da²⁰.

CASTELLS ARTECHEk dio tradizionalki udal lurraldearen aldaketen inguruko legedia 2 arrazoietara lotuta egon dela: udalerria lurralde erakunde bat jarraitzen izatearen aldeko politika globaletara, eta testuinguru politikora, zeinak pauta zentralista, autonomista, autoritario edo demokratikoak azaleratzen dituen²¹.

Euskal udal-tradizioari dagokionez, azpimarratzekoa da toki-erakundeek beraien burua antolatu, arautu eta kudeatzeko izan dituzten eskumen zabalak. Foru-udalen eta batzar legegile foralen arteko harremana estua izan den heinean, udal-maila eta foru-lurralde bakoitzaren maila egoki sustatu izan dira. Hala ere, udal-eredu forala XIX. mendean krisian sartu zen Bizkaia, Araba eta Gipuzkoan, 1841eko urriaren 29ko Errege Dekretua²² inposatuz indarrean zegoen foru-sistema eta udal foru-sistema alde batera utzi baitziren. 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak (ETEL)²³, bere hitzaurrean adierazten du 1876ko uztailaren legearen ondorioz, zuzenbide publikoko euskal foruen azken arrastoak behin betiko baliogabetu zirela, baina, hala ere, nahiz eta antzeko egoerara ez iritsi, EAEko udalen egoera juridiko-ekonomikoa nabarmen bereiztuz joan zela araubide komuneko udalen aldean²⁴. Horrela, 1878an sortutako

¹⁹ 1975eko Toki Erregimenaren Oinarria arautzen duten Legeko Hitzaurreko II. puntuan zerrendatzen dira, bi etapatan ezberdinduta daudelarik: lehenengoan, toki erakundeak, eta bereziki udalerria, Estatuaren organoen aurrean gorako sistema baten eraginpean ezartzen da; eta bigarrean, aurreko ezohiko sistemarekin amaitu eta etapa autonomiko bat irekitzen da.

²⁰ Vid. BARRANCO VELA, R. (1993). *Creación y...* op. cit., 48-53 or.

²¹ Vid. CASTELLS ARTECHE, J.M. (1983). «La nueva problemática de las alteraciones territoriales municipales», *Revista de Administración Pública (RAP)*, 100-102. zk., 2159 or.

²² Errege Dekretua, Bizkaia eta Gipuzkoako zuzentzaile politikoak goi-mailako buruzagi politiko izendatzen dituen, 1841eko urriaren 29koa (Gaceta de Madrid, 1841ko urriaren 29koa, 2576. zk.)

²³ Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 2016ko apirilaren 7koa (Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala, 2016ko apirilaren 14koa, 70. zk.)

²⁴ Gai honen inguruan gehiago sakontzeko, ikusi CELAYA IBARRA, A. (1985). *Derecho Foral y Autónomo Vasco*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea, 44-67 or. bereziki.

Kontzertu Ekonomikoaren araubidearen babesean toki-eredu propio bat eratzera iritsi zen Euskal Autonomia, doktrinak “udal kontzertatua” deitu duena²⁵.

Garai hartatik aurrera, nahiz eta erregimen politikoak aldatu, historikoki zegoen foru sistema asko ahuldu zen eta berezitasun batzuk mantendu ziren, zeintzuk estatuko legeen xedapenetan barnebiltzen ziren. Hala ere, eta gaur egun oraindik ere horrela da, Bizkaia, Araba, Gipuzkoa eta Nafarroako berezitasunak mantentzen dira, betiere Konstituzio edo indarrean dagoen estatuko legearen kontrakoak ez diren heinean.

Egun indarrean dagoen legeak, Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen 1985ko Legeak 3 aldaketa izan ditu, azkena Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunaren 27/2013 Legeak²⁶ (erderaz LRSL) egindakoa. Indarrean dagoen legearen udalerrien inguruko oinarriak aipagarriak dira, izan ere, 3. artikularen arabera, lurraldedun toki-erakundeak eta toki-erakundeak bereziten dira, eta udalerria lehenengo hauen artean kokatzen da. Horrez gain, legeak lehenengoei bigarrenengoei baino ahalmen zabalagoak aitortzen dizkie, eta 4.1. artikuluan lurraldedun toki-erakundeei, eta ondorioz, udalerriei hainbat ahalmen aitortzen dizkie, besteak beste, erregelamenduak eta barne-antolaketak sortzeko ahalmena, finantza eta tributua-ahalmena, eta planifikaziorako eta programaziorako ahalmena. Aldiz, toki-erakundeei dagokienez, ahalmen mugatuagoak izateaz gain, hauek Autonomia Erkidegoetako edota foru lurraldeetako Batzar Nagusien legeak zehaztu beharko dituzte²⁷.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Bizkaian zentratuz, aldaketak jasan arren gaur egun indarrean dagoen 9/2012 Foru Arauak²⁸ udalerria, udalak bere eskumena erabiltzen dituen etenik gabeko lurraldeztat definitzen du (3. art.).

²⁵ 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak, foruen inguruan honako hau dio: “Eredu hori oso maila desberdineko arau juridikoek babesten dute, baina euskarria ematen diote euskal sistemaren berezitasunari. Ildo horretatik, adibide moduan aipa daitezke, hurrenkera kronologikoari jarraituz, 1878ko ekainaren 8ko Errege Agindua, 1882ko abuztuaren 29ko Probintzia Legearen laugarren xedapen iragankorra, 1891ko abuztuaren 8ko Errege Agindua eta horietatik eratorritako ondorengo arauak. Garai horretan, EAeko udalen eskumenak estuki lotuta egon ziren euskal aldundiek, Kontzertutik bertatik eratorritako ahalmen ekonomiko-administratiboei jarraituz, gero eta ahalmen gehiago edukitzearekin. Hala ezartzen zuen 1906ko abenduaren 13ko Errege Dekretuaren 15. artikulua, eta oraindik indarrean dago haren edukia, egungo Kontzertu Ekonomikoaren hirugarren xedapen gehigarrian jasota baitago. Eta Primo de Riveraren diktaduraren bete-betean ere, 1924ko urriaren 21eko Errege Dekretuak jaso zituen 1924ko Udal Estatutuak EAeko araubide bereziari egindako egokitzapenak.” Euskal Herriko Agintaritza Aldizkaria, 70. zk. 2016ko apirilaren 7a.

²⁶ Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunaren 27/2013 Legea, 2013ko abenduaren 27koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 30koa, 312. zk.)

²⁷ Gai hau sakonago aztertzen da MORELL OCAÑA, L. (1987). «Las entidades locales, elementos integrantes de la organización territorial del Estado y de las Comunidades Autónomas», *REDA* 55. 325-352 or.

²⁸ 9/2012 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzkoa, 2012ko abenduaren 5koa (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2012ko abenduaren 18koa, 241. zk.)

4.1.1. Udalerriaren elementu edo osagaiak: lurraldea

PARADA katedradunaren hitzetan oinarrituz, gaur egun, Espainiako Konstituzioak, nahiz eta bere 137. artikuluan udalerria, probintzia eta Autonomia Erkidegoarekin batera, Estatuaren lurralde antolakuntzaren entitatetzat hartzen da, eta 140. artikulua autonomia eta izaera juridiko osoa bermatzen dio, ez du inolako udalerriaren inguruko definiziorik ematen²⁹.

Definizioa, TEOLeko 1. artikuluan arautzen da: “Udalerriak Estatuaren lurralde antolakuntzaren oinarrizko erakundeak dira eta herritarrek gai publikoetan parte hartzeko hurbileko bideak dira, dagozkien kolektiboen berezko interesak autonomiarekin kudeatu eta erakundetzen dituztelarik”. Irakurketa horretatik udalerriek lau ezaugarri dituztela ondorioztatu daiteke: alde batetik Estatuaren lurralde antolakuntzaren oinarrizko toki-erakundeak dira, bestetik herritarrek arazo publikoetan esku hartzeko daukaten zuzeneko baliabideak dira, interes propioak autonomikoki kudeatu eta erakundetzeko berme instituzionala dute, eta azkenik, TEOLeko 11. artikuluaarekin uztartuz, udalerriek nortasun juridiko propioa dute.


Aipatutako 11. artikulua udalerriaren osagaiak zeintzuk diren zehazten ditu, hain zuzen ere, lurraldea, biztanleria eta antolakuntza. Legearen II. Tituluko I. Kapituluan, lehen bi osagaiak arautzen dira, eta 12. artikulua araberan, udal-lurraldea udalak bere eskumenak baliatzen dituen lurralde-esparrua da. Biztanleriari dagokionez, 15. artikulua dio Espainian bizi den pertsona oro ohiko bizilekua duen udalerrian erroldatu behar dela, eta udal-erri bakoitzeko erroldan inskribatuta dagoen jende multzoak udal-erri horren biztanleria osatuko duela, hauek bertako auzotarrak izango direlarik. Antolakuntzari dagokionez, II. Kapituluko 19. artikulua dio udal-gobernua eta administrazioa udalari dagozkiola, salbu legez kontseilu ireki gisa jarduten duten udal-errietan, eta udala alkate eta zinegotziek osatzen dutela. Hala ere, Autonomia Erkidegoek, TEOLn ezarritako organoek gain, beraien toki-administrazioei begira, antolakuntza osagarria zehazteko ahalmena dute. Horrela, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legearen arabera, udal administrazioaren egituraren eredia hurrengo irudian dagoena izan ahalko litzateke³⁰:

²⁹ PARADA VAZQUEZ, R. (2010). *Derecho Administrativo II, Organización y empleo público*, Madrid: Marcial Pons, 155 or.

³⁰ TEOLko 20. artikulua: “1. Udal-antolakuntza arau hauen arabera da:

a) Udal guztietan alkatea, alkateordeak eta osoko bilkura daude.
b) 5.000 biztanle baino gehiagoko biztanleria duten udal-erri guztietan Tokiko Gobernu-batzarra dago; biztanle gutxiagokoetan, aldiz, bertako erregelamendu organikoan hala xedatu eta udaleko osoko bilkurak hala erabakitzen badu.

1. Irudia: Udal administrazioaren egitura hierarkikoa



Egilea: Norberak egina

Udal lurraldean zentratuz, TEOL-ek udalerrien lurraldea aldatzeko aukera ahalbidetu du, baina, aldakuntza hori Autonomia Erkidegoen legeak xedatu behar duela eskatzen du (13. art.). Udal lurraldearen aldaketari dagokionez, bi joera nagusi daude, alde batetik, baldintza zorrotzen menpe, aldaketa udalerrien sortze edo ezabatzearen bidez egin ahal izango da, eta bestetik, gaur egungo estatuaren joera udalerririk batzearen aldekoa den heinean, aldaketa TEOLek aurreikusi eta lehenesten duen udalerrien bat egitearen bidez eman daiteke. AMENÓS ALAMOren hitzetan, tresna hau 27/2013 Legearen bitartez barneratu da legean, zeinari marko oso bat zehaztu zaion³¹. Estatuaren joera hori argi geratzen da 13.3. artikuluan, zeinaren arabera, Autonomia Erkidegoaren kompetentziei

[...]

e) Udalerririk guztietan Kontuen Batzorde Berezia dago, 116. artikuluan aurreikusitako egiturarekin bat etorritik.

2. Aurreko zenbakian aurreikusitako udal antolakuntzaren beste osagarri bat ere ezar dezakete autonomia-erkidegoek toki-araubideari buruzko legeetan.

3. Udalerririk beste organo osagarri batzuk ezarri eta arautu ahal izango dituzte beren erregelamendu organikoetan, artikuluko honetan ezarritakoarekin eta aurreko zenbakian aipatutako autonomia erkidegoetako legeetan aurreikusitakoarekin bat etorritik.”

³¹ AMENÓS ÁLAMO, JOAN (2013). «El elemento territorial del municipio en la Ley 27/2013, de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local», *Anuario del Gobierno Local 2013*, Fundación Democracia y Gobierno Local, 1. zk., 51 or.

kalte egin gabe, Estatuak, gai publiko lokalen kudeaketa gaitasuna hobetzeko helburuarekin eta irizpide geografiko, sozial, ekonomiko eta kulturalean oinarrituz, udalerrien bat egitea sustatzeko neurriak hartu ditzake.

Nahiz eta udalerrien mugartea aldatzeko beste mota bat izan, honek ez ditu segregazioak dituen betekizun berdinak bete behar, gerora sakonki azalduko denez³², segregazio prozesuari estatuko legediak hainbat muga ezarri baitizkio. 13.4. artikuluari jarraiki aldiz, bat egiteko ez da inolako biztanleria kopuru zehatzik izan behar, bi betekizun soilik eskatzen dira: probintzia berean elkarren ondoan kokaturik dauden udalerrriak izan behar direla, eta behin bat eginda 10 urteren buruan ezin izango direla segregatu. Horrez gain, hainbat abantaila eskaintzen dizkie bat egiten duten udalerriei, besteak beste, gutxienezko zerbitzu berriak eskaintzetik salbuesten ditu eta diru-laguntzak jasotzeko eskubide lehentasuna eskaintzen die lehen 5 urteetan.³³

Udal mugartea aldatzeko prozedura, gaur egun, Autonomia-Erkidegoen legeetan jasota dago, izan ere, gero eskumen banaketaren inguruan sakonki aztertuko den bezala, gai hau garatzea Lurralde Historikoei dagokie. Ondorioz, Espainiar Estatuan udalerrien aldaketak ezberdinak izan daitezke, nahiz eta denek jarraian zehaztutako TEOLko oinarrizko baldintzak bete behar, erkidego bakoitzean prozedura era batekoa edo bestekoa izan daitekeenez, berezitasunak egon daitezke.

4.1.2. Udal lurraldearen aldaketa kasuak: Segregazioa

4.1.2.1. Eraentza orokorra

Udal-lurraldea udalerrriaren lurralde oinarria izanik, udalerrien segregazioa lurraldearen modalitate bat da, honen bidez udalerrri baten lurralde zati bat udalerrri berri batean sortu edo beste udalerrri batera atxikitzen baita. Honen harira, Bizkaiko 9/2012 Foru Arauak, 6/2015 Foru Arauaren aldaketa barneratuta³⁴, segregazioa honela definitzen du: "Foru arau honetan ezarritakoaren ondorioetarako, udalerrriak aldatzea prozedura bat da, kasu hauetako bat eragin dezakeena: a) udalerrri baten edo batzuen lurralde zati bat banatzea, udalerrri mugakide bati edo batzuei eransteko; e) udalerrri bateko lurralde zati bat banatzea

³² 4.1.2. Udal lurraldearen aldaketa kasuak: segregazioa epigrafean sakontzen da honen inguruan.

³³ Gainera, 13.6. artikulua bat egiteko akordio hartzeko garaian gehiengo simplea ezartzen du, nahiz eta mugarte aldaketak aurreko legedietan gehiengo absolutu bidez xedatuak izan diren: "El convenio de fusión deberá ser aprobado por mayoría simple de cada uno de los plenos de los municipios fusionados. La adopción de los acuerdos previstos en el artículo 47.2, siempre que traigan causa de una fusión, será por mayoría simple de los miembros de la corporación."

³⁴ 6/2015 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzko 2012ko abenduaren 5eko 9/2012 Foru Araua aldatzen duena, 2015ko martxoaren 25ekoa (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2015ko martxoaren 27koa, 62. zk.)

udalerrri independente bat eratzeko”. Segregazioaz gain, agregazio eta bateratze prozedurek osatzen dituzte udal lurraldeen aldaketa kasuak.

Gaur egungo estatuko legediak ez du segregazioaren inguruko definizio zehatzik ematen, aukera eman eta baldintzak jartzen ditu³⁵. Izan ere, TEOLek segregazio bidezko aldaketa eragiteari hainbat muga eta kautela ezarri dizkio, aldaketarik izatekotan, arrazoi argietan oinarritutako aldaketak izan beharko direlarik. Muga orokorra TEOLren 13. artikuluan xedatzeaz gain, Espainiako Konstituzioko 141.1. artikulutik ondorioztatu daiteke, hain zuzen ere, legearen arabera udalerrrien aldaketak ezin du probintzien mugak aldatzea ekarri, eta Konstituzioak dio probintzien mugen edozein aldaketa Gorte Nagusiek, lege organikoaren bidez, onetsi behar dutela.

Kautela neurri bezala, udalerrri berriak sortzeko baldintzak barnebiltzen ditu 13.2. artikulua, hauetariko bat lurralde izaera duten bizigune berezia izan behar dela da. Honen harira, Auzitegi Konstituzionalak bizigune bereziaren inguruko interpretazioa jaso du epai ezberdinetan, baina ez du espreski zehaztu zer den, izan ere 214/1989 Epaian garai hartako Galiziako biztanleria barreiatzailea definizioaren barne sartzen du, baina aldi berean bizigune berezia osatzen ez duen biztanleria barreiatzailearen ezaugarriak horrela kalifikatzeko bezalako indarrak ez duela zehazten du (8. ZO)³⁶. Beste baldintzak, bizigune horiek gutxienez 5.000 biztanle izan behar dituela, finantzarioki sostengarria izan behar dela, udal eskumenak gauzatzeko finantza baliabide nahikoak izan beharko dituela eta zerbitzuak ordura arte ematen zirenak baino kalitate gutxiagokoak izan ezin direla dira.

Honen inguruan, Estatuaren Kontseiluko 1356/93 Irizpenak dio “debe el interés público general guiar la decisión de autorizar la desmembración de un municipio consolidado, aunque esta latente en él la razonable decisión de separarse del núcleo matriz”³⁷. Horrez gain, segregazioen inguruko legediak nahikotasun finantzarioa eta zatitutako udal gorputzetik banatuta bideragarritasuna dutela bermatzen saiatu da.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, 1979ko Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak, Gernikako Estatutua izenez ezaguna denak³⁸, Lurralde Historikoei udal mugapenen materian araugintza eta exekuzio eskumena esleitzen dien heinean,

³⁵ Vid. PARADA, R. (2010). *Derecho...* op. cit., 155 or.

³⁶ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 214/1989 Epaia, urtarrilaren 11koa, 8. Zuzenbide Oinarria.

³⁷ EKI edo Estatuko Kontseiluaren 1356/93 Irizpena, 1993ko azaroaren 25ekoa, 1993ko Legezko Doktrinaren Bildumako 37. zk. marjinala, 219 or.

³⁸ Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoa, 1979ko abenduaren 18koa (Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala, 1980ko urtarrilaren 12koa)

probintzietako legegileek hainbat lege sortu dituzte. Bizkaian, Batzar Nagusiak 2/1987 Foru Araua³⁹ onartu zuen, zeina Bizkaiko udal mugarteen 8/1993 Foru Arauak⁴⁰ indargabetu eta ordezkatu zuen eta hau, aldi berean, Bizkaiko lurralde mugapenen 9/2012 Foru Arauaren bitartez aldatua izan zen.

4.1.2.2. Bizkaiko segregazioen bilakaera

Segregatuko udalerrien kopuruari dagokionez, Espainiar Estatu mailan Toki Erakundearen Erregistroaren arabera, 8.124 udalerrri daude, hauetatik 18, INE-ko datuetan oinarrituz, azken 18 urteetan segregatu izan direlarik. Euskal herri mailan aldiz, Estatistikako Institutu Nazionalaren Hego Euskal Herriko eta Euskal Kultura Erakundearen Ipar Euskal Herriko zifrak batuz, 681 udalerrri daude gaur egun. Guzti hauetatik Bizkaia mailan 16, taulan ikus daitekeen bezala, azken 30 urteetan desanexionatu izan dira.

1. Taula: 1983tik gaur egunera arte Bizkaian segregatutako udalerrriak

UDALA	SORRERA URTEA	LEHEN ZER UDALETAN ZEGOEN	HERRIALDEA	BIZTANLE KOPURUA
BERRIATUA	1983	ONDARROA	BIZKAIA	1.200
DERIO	1983	BILBO	BIZKAIA	6.200
ERANDIO	1983	BILBO	BIZKAIA	24.200
LOIU	1983	BILBO	BIZKAIA	2.400
SONDIKA	1983	BILBO	BIZKAIA	4.500
ZAMUDIO	1983	BILBO	BIZKAIA	3.200
FORUA	1987	GERNIKA-LUMO	BIZKAIA	1.000
KORTEZUBI	1987	GERNIKA-LUMO	BIZKAIA	400
MURUETA	1987	GERNIKA-LUMO	BIZKAIA	300
NABARNIZ	1987	GERNIKA-LUMO	BIZKAIA	250
IURRETA	1990	DURANGO	BIZKAIA	3.800
AJANGIZ	1991	GERNIKA-LUMO	BIZKAIA	450
ALONSOTEGI	1991	BARAKALDO	BIZKAIA	2.800
ARRATZU	1993	GERNIKA-LUMO	BIZKAIA	400
ZIERBENA	1995	ABANTO-ZIERBENA	BIZKAIA	1.500
ZIORTZA-BOLIBAR	2004	MARKINA-XEMEIN	BIZKAIA	450

Egilea: Norberak egina.

Taulan ikus daitekeen bezala, 1980ko hamarkadan segregazioen eztanda bat eman zen, izan ere, garai hartan Desanexioaren Aldeko Herrien Koordinadora sortu zen, sustatzaile


³⁹ 2/1987 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzkoa, 1987ko otsailaren 11koa (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 1987ko otsailaren 20koa, 42. zk.)

⁴⁰ 8/1993 Foru Araua, Bizkaiko Udal Mugarteei buruzkoa, 1993ko uztailaren 7koa (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 1993ko uztailaren 8koa)

nagusiak Txorierriko Erandio, Derio, Loiu, Sondika eta Zamudio herriak izan zirelarik. Hauen ondoren, Iurreta ere batu zen elkarte horretan bertan. Koordinadora honek neurri batean bere helburua lortu zuen, 1982ko abenduaren 22an Eusko Jaurlaritzak Txorierriko bost udalerriak Bilbotik desanexionatzeko dekretua onartu baitzuen. Aipagarria da, gerora azalduko denaren sarrera bezala, Bizkaiko segregazio prozesuetan Eusko Jaurlaritzak sinatutako azken dekretua izan zela hau, izan ere, garai hartatik aurrera Lurralde Historikoen esku utzi baita ahalmen hori.

Segregazio prozesu hauek epe ezberdinetan eman izan dira, baina hurrengo grafikoan oinarrituz, aipatzeko da, hamasei udalerrri berrietatik hamalau 1983 eta 1993. urte bitartean eman izan direla. Are gehiago, grafikoan 80. hamarkadako segregazio joera hori gaur egun jada desagertu egin dela ikus daiteke, horren adierazle delarik XXI. mendean segregaturiko herri bakarra Ziortza-Bolibar izatea. Honen arrazoi nagusietariko bat diktadura garaiko handitasun nahiarekin zerikusia du⁴¹. Izan ere, Gernika eta Bilboren kasuetan, hirigintza-planak gauzatzeko lurra behar zenez, bi herriek inguruko udalerrriak bereganatu zituzten 1966. urtean⁴². Beraz, behin frankismo garaia amaituta, segregazio prozesua hasi eta Bizkaian segregazio masiboak eman ziren 1993 eta 1987. urteetan.

1. Grafikoa: Bizkaian 1983. urtetik gaur egunera arte segregatutako udalerrri kopurua



Egilea: Norberak sortua

⁴¹ Vid. SÁNCHEZ MORÓN, M. (2011). *Derecho...* op. cit., 352 or.

⁴² EIN-ren datuen arabera, 1966. urtean Bilbok hurrengo desagertutako udalerrien lurraldeak bereganatzen ditu: Derio, Loiu, Sondika eta Zamudio. Erandioren kasuan, hau Bilbori erantzen zaio 1940. urtean. Gernikaren kasuan ere urte berean erantzen zaizkio Forua, Cortezubi (gerora Kortezubi), Navarniz (gerora Nabarniz) eta Murueta. Desagertutako Ajanguizen (gerora Ajangiz) lurraldea 1943. urtean bereganatzen du Gernika-Lumok.

4.2. UDAL LURRALDEAREN ALDAKETEI BURUZKO ESKUMENAK

Espainiako Konstituzioak, bere 137. artikuluan, toki administrazioei ezaugarri nagusi bat aitortu die, autonomia: “Estatuko lurraldea udalerrietan, probintzietan eta sortzen diren autonomia erkidegoetan antolatzen da. Erakunde horiek guztiek dagozkien interesak kudeatzeko autonomia dute.”. Honek, udalerrientzat ondorio garrantzitsuak dakartza, izan ere, udalari bere interes propioak kudeatzeko ahalmena ahalbidetu, gobernu organoko kideak hautatzeko autonomia eskaini, arauak onartzeko gaitasuna aitortu eta finantza autonomia ematen dio. Horrela, Auzitegi Konstituzionalaren 4/1981 Epaia dio autonomia lokalak, zentzu zabalean Estatuaren boterearen banaketari egiten diola erreferentzia, eta udal elkartearen eskubide bezala ulertu behar dela, zeinak organo propioen bitartez, gobernuan eta administrazioan parte hartzeko eskubidea ahalbidetzen dion, nahiz eta estatuaren batasunaren printzipioaren aurrean botere mugatu bat den (3. ZO)⁴³.

Udal autonomiaren bitartez, toki-erakundeei auzotarren interes eta asmoetan eragiten dieten gai guztietan esku hartzeko bidea eman behar zaie, beraz, udalerrientzat berme bat den heinean, legegilearentzat desitxuratu ezin den muga bat ezartzen da. Baieztapen hau Konstituzio Auzitegiaren 32/1981 eta 84/1982 Epaietan oinarritzen da, eta 170/1989 Epaia 9. Zuzenbide Oinarrian laburbildu⁴⁴.

Konstituzioaz gain, udalerrien autonomiaren legezko konfigurazioa 1985eko urriaren 15eko Toki Autonomiari buruzko Europako Kartan⁴⁵ dago, honek udal autonomia era zabal batean xedatzen baitu, bere 4. artikuluan udal autonomiaren irismena xedatuz.⁴⁶

Lurralde Historikoei buruzko 27/1983 Legeak ere udalerrien autonomia aipatzen du bere 3. artikuluan: “Autonomia Erkidegoak, Euskal Herriko udalen autonomia aitortu eta bermatzen du, bere interes pribatuak kudeatzeko eta bere baliabideak administratzeko”.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, nahiz eta estatuak lege-erreformen bidez udalei autonomia mugatu, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legeak euskal udalerrien autonomia modu zabalean arautu du. Lege honen xede nagusia Euskal

⁴³ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 4/1981 Epaia, otsailaren 2koa, 3. Zuzenbide Oinarria.

⁴⁴ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 170/1989 Epaia, urriaren 19koa, 9. Zuzenbide Oinarria.

⁴⁵ Toki Autonomiari buruzko Europako Karta, Estrasburgon 1985ko urriaren 15ean egindakoa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1989ko otsailaren 24koa, 47. zk.)

⁴⁶ Europako Kartak honela xedatzen du udalerrien autonomia bere 3. artikuluan: “Por autonomía local se entiende el derecho y la capacidad efectiva de las Entidades locales de ordenar y gestionar una parte importante de los asuntos públicos, en el marco de la Ley, bajo su propia responsabilidad y en beneficio de sus habitantes.” Aldiz, 4. artikuluan, udalerriei bermatu beharreko eskubideak ezartzen dira, hala nola “Las Entidades locales tienen, dentro del ámbito de la Ley, libertad plena para ejercer su iniciativa en toda materia que no esté excluida de su competencia o atribuida a otra autoridad.”.

Autonomia Erkidegoko toki-erakundeetan toki-autonomia garatzea da, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean jasotako printzipioei jarraituz. Lege honetan jasotako aurreikuspenen bitartez, batez ere, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek beren toki-autonomia osorik balia dezaten babestu eta bermatzea lortu nahi da. Horrez gain, lege honen helburua Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko gobernu-mailari eskumen multzo bat aitortzea eta ematea da, botere politiko propioa izango duela eta bideragarri gerta dakion herritarrei kalitatezko zerbitzuak ematea, tokiko gobernu ireki, garden eta parte-hartzaile baten bidez.

Behin udalerrien autonomia printzipioa definituta, udalerrien aldaketan inguruan dauden eskumenak zehaztuko dira, hauen banaketa azalduz eta segregazio prozesuak arautzeko entitate eskudunak definituz.

4.2.1. Toki Administrazioari buruzko eskumen banaketa Estatu eta Euskal Autonomia Erkidegoaren artean

Toki administrazioei buruzko erregimen juridikoa Estatuaren eta Autonomia Erkidegoen arteko eskumen banaketan oinarritzen da, eta ezaguna denez, eskumen banaketa hau, Espainiako Konstituzioko 148 eta 149. artikuluek xedatzen dute. Aipaturiko lehen artikulua Autonomia Erkidegoei dagozkien eskumena zehazten ditu, eta zehazki, 148.1.2. artikulua arabera, “Autonomia Erkidegoen esku dago beraien lurraldean dauden udalerrien aldaketetan eta, oro har, toki-erakundeekiko Estatuko administrazioari dagozkion eginkizunetan, toki-araubideari buruzko legerian eskualdatze hori baimentzen denean”. 149. artikulua aldiz, estatuaren erabateko eskumenei gai zerrenda jasotzen du, eta bere lehen ataleko 18.en puntuan dio herri-administrazioen zuzenbide-erregimenaren eta horien funtzionarioen estatutu-erregimenaren oinarrietan eta oinarri horiek, betiere, administratuek horien aurrean tratu bera izango dutela bermatuko dute; ohiko administrazio-prozeduran, autonomia erkide bakoitzaren antolamendutik eratorritako berezitasuna kontuan harturik; nahitaezko desjabetzearen legerian; administrazio-kontratu eta –kontzesioei buruzko eta administrazio guztien erantzukizun-sistemari buruzko oinarritzko legerian.

Bi artikulua uztartuz ondorioztatu daiteke administrazio publikoen erregimen juridikoa ezartzeko eskumena Estatuaren eta Autonomia Erkidegoaren artean partekatua dagoela, 3 maila ezberdinetan⁴⁷:

⁴⁷ Honen inguruan gehiago sakontzeko ikusi MORELL OCAÑA, L. (1987). «Las fuentes del derecho local. Problemas generales. Competencias del estado y las comunidades autónomas», *REALA*, 235-236. zk., 489-532 or.

- Oinarrizko legegintza: Honi dagokionez, Estatuak dauka eskumen eskusiboa eta ondorioz hainbat lege sortu ditu, beraien artean TEOL 7/1985 Legea, zeinak 3 aldaketa izan dituen: lehen aldaketa 11/1999 Legearekin⁴⁸ etorri zen, bigarrena 57/2003 Legearen bitartez⁴⁹ eta azkena aurrez aipaturiko abenduaren 27ko 27/2013 toki administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunari buruzko Legearen bitartez. Honez gain, 7/1985 Legea eta Toki Erregimenaren inguruko beste zenbait xedapen bateratzen dituen 781/1986 Errege Dekretu Legegilea⁵⁰ aipatu behar da, zeinak urteetan zehar emandako arauetan dauden eta oraindik ere indarrean zeuden xedapenak batzen dituen.

Lege honen bitartez antolaketari eta eskumenei buruzko oinarriak, besteak beste udalerrien osagaiak eta administrazioen arteko harremanen oinarriak arautu dira, izan ere Konstituzioko Auzitegiaren epaiak dio “sin perjuicio de la competencia exclusiva que el art. 148.1.3. CE atribuye a las Comunidades Autónomas para la alteración de los termino municipales comprendidos en su territorio, forma parte de la competencia estatal la regulación del elemento territorial y su relación con el resto de los elementos que componen la estructura municipal para configurar un modelo municipal común” (3. ZO)⁵¹.

- Garapenezko legegintza: Euskal Autonomia erkidegoak dauka oinarrizko legegintza garatzeko eskumena, izan ere, Euskal Herriko Estatutuak, Gernikako Estatutua izenez ezagutzen denak, 10.4. artikuluan dio EAEk, EKren 148.1.18. artikuluari kalterik egin gabe, eskumen eskusiboa duela Toki Erregimenaren eta Euskal Herriko Funtzionarioen eta Toki Administrazioen Estatutuaren inguruko gaietan. Honen adibide da aurrez aipaturiko 2/2016 Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legea. Hala ere, eskumen banaketa hau egiterako orduan, Lurralde Historikoei buruzko Euskal 27/1983 Legea (LHL)⁵² kontuan izan behar da, izan ere, gerora

⁴⁸ 11/1999 Legea, Toki Erregimenaren oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Tokiko Gobernuaren garapeneko beste neurri batzuk aldatzen dituen, trafiko, ibilgailuen zirkulazioa, errepideen segurtasuna eta uraren arazoaren gaietan, 1999ko apirilaren 21ekoa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1999ko apirilaren 22koa, 96. zk.)

⁴⁹ 57/2003 Legea, gobernu lokalerako modernizazio neurrien ingurukoa, 2003ko abenduaren 16koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2003ko abenduaren 17koa, 301. zk.)

⁵⁰ Errege Dekretu Legegilea 781/1986, Erregimen Lokalaren materiaren inguruan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duena, 1986ko apirilaren 18koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1986ko apirilaren 22koa, 96. zk.)

⁵¹ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 103/2013 Epaiak, maiatzaren 23koa, 3. Zuzenbide Oinarria.

⁵² 27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzkoa, 1983ko azaroaren 25koa, (Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala, 1983ko abenduaren 10ekoa, 182. zk.)

sakonago aztertuko den bezala, azken honek erakunde erkide eta foru-erakundeen arteko eskumen banaketa ezartzen du, toki erakundeen inguruko eskumenak barne.

- Toki erakundeek beraiek sortutako araubidea: TEOL 84.1. artikulua toki erakundeei hiritarren jardueretan esku hartzea ahalbidetzen die, zeina erregelamenduak sortzeko ahalmenarekin egikaritu dezaketen. Ondorioz, toki administrazioek, aurreko legeek ezarritakoa errespetatuz, toki-administrazioen erregimen juridikoa osatzeko eskubidea dute.

Mailaketa honen ondorioz esan daiteke antolakuntza arloari dagokionez, toki administrazioek lehenik oinarritzko legegintza den TEOL jarraitu beharko dutela, hauek ezarritako egitura organikoa izan beharko dutelarik. Ondoren, Autonomia Erkidegoen legeek egituraketa osagarria arautuko duten heinean, hauek errespetatu beharko dituzte, eta behin hauek errespetatuta, toki administrazio bakoitzak bere barne antolaketa osatu ahal izango du.

2. Irudia: Administrazio publikoaren erregimen juridikoaren mailaketa



Egilea: Norberak egina.

4.2.2. Toki Administrazioari buruzko eskumen banaketa Erakunde Erkideak eta Foru Erakundeen artean

TEOLk, bere xedapen gehigarrietan Autonomia Erkidego ezberdinei erreferentzia egiten die, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako Lurralde Historikoak 2. xedapenean zehazten direlarik. Horrela, 2. xedapen gehigarriak hainbat berezitasun onartzen dizkie Lurralde Historikoei, zeinak zerrendatu egiten dituen. Berezitasunetako bat Lurralde Historikoek beraien erakundeak askatasunez antolatuko dituztela eta erakundeen jardunerako beharrezkoa arauak onartu ahalko dituztela da, TEOLn probintzien antolakuntzari

buruzko arauak aplikatu beharrik gabe eta Konstituzioko lehen xedapen gehigarrian eta Gernikako Estatutuko 3, 24.2. eta 37. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Gainera, xedapenak dio Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Lurralde Historikoen, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak eta bera garatzeko eta aplikatzeko emandako autonomia-erkidegoko barne-legediak aitortutako eskumenak gauzatuko dituztela, baita lege honek orokorrean probintzietako diputazioei aitortzen dizkienak ere. Konstituzio Auzitegiko 214/1989 Epaia onartzen du “la LRBRL, en la Disposición adicional 2ª, no ha hecho, pues, sino atender al propio mandato constitucional, preservando la singularidad misma de ese régimen foral en los aspectos organizativos, en unos términos y con un alcance perfectamente compatible con la propia Constitución.” (26. ZO)⁵³. Epa horrez gain, autonomia foralaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren bidimentsionalitatearen inguruan epa ugari eman dira, aipatzekoa Konstituzio Auzitegiaren 118/2016⁵⁴ Epaia edota 76/1988 Epaia⁵⁵.

1979ko Gernikako Estatutuaren 3 eta 24.2. artikuluek Lurralde Historikoen inguruko antolaketa zehazten dute, aldiz, 37. artikulua, Lurralde Historikoen kompetentzia eskusiboak zerrendatzen ditu, hainbat materia zehaztuz eta beraien artean probintzien mugak gainditzen ez dituzten eremu supramunizipaleko udal lurraldeak kokatzen dira. Aurrekoan oinarrituz, eta lehen aipatu bezala, Lurralde Historikoen Legeak (LHL) erakunde erkide eta foru erakundeen arteko eskumen banaketa zehazten du. Izan ere, bere lehen artikulua dio Autonomia Erkidegoen Erakunde komunak eta Lurralde Historikoen Foru Organoen eskumen banaketa, horien jabeagari eta egikaritzari dagokionean, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan xedatutakoa kontuan izanik lege honen bitartez arautuko dela.

LHLren 6. artikulua arabera, Ohiko Erakundeek, Autonomia Estatutuari jarraiki, Estatutuan, lege honetan edo gerokoren batean Lurralde Historikoetako foru organoei aurrekusi edo antzematen ez dizkieten gaietan, legegintza eta exekuzio eskubidea dute. Lege honen bigarren kapituluak Lurralde Historikoen kompetentziak arautzen ditu, eta hain zuzen ere, 7. artikulua arabera, Lurralde Historikoen foru organoek kompetentzia eskusiboa dute udaleko eta udalez gaindikoa mugaketen gain, betiere Lurralde Historikoen mugapeak gainditu gabe. Hemen matizazio txiki bat egin behar da, gaian sartu gabe, izan ere, nahiz eta Gernikako Estatutuak eta Lurralde Historikoen Legeak

⁵³ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 214/1989 Epaia, abenduaren 21koa, 26. Zuzenbide Oinarria.

⁵⁴ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 118/2016 Epaia, ekainaren 23koa, 4. Zuzenbide Oinarria.

⁵⁵ KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 76/1988 Epaia, apirilaren 26koa, 5. Zuzenbide Oinarria.

Lurralde Historikoei udalez gaindiko mugaketen inguruko eskumen eskusiboa esleitu, aipagarria da eskumen horren bitartez udalerrien lurraldeetan jarduteko duten oinarri juridiko eskasa.

Gainera, TEOL bere 2. xedapen gehigarrian Lurralde Historikoek udalen inguruko gaian duten berezitasuna xedatzen da, izan ere, honen arabera Euskal Herriko lurralde historikoek araubide bereziarekin jarraituko dute udal-arloan ekonomiaren eta finantzaketaren araubideari dagokionez Ekonomia Itunaren Legean esandakoaren arabera. Baina horrek ez du esan nahi euskal toki-korporazioek gainerako toki-korporazioek baino autonomia maila txikiagoa dutenik, nahiz eta TEOLren 115. artikuluan⁵⁶ xedatutakoa eta gai horri dagokionez autonomia erkidegoari dagozkion eskumenak aplikatu.

4.3. SEGREGAZIOARI BURUZKO ERREGIMEN JURIDIKOA

4.3.1. Espainiar Legedia

Nahiz eta udal-lurraldearen inguruko espainiar legedia urteetan zehar anitza izan, udal lurraldea zehaztean aipatu bezala, aipagarrienak eta gerora aztertuko den segregazio prozesuan aplikagarriak izan diren hiru lege aztertuko dira jarraian.

4.3.1.1. Toki Erregimenaren Estatutuko oinarrien 41/1975 Legea, azaroaren 19koa
Lege honen hitzaurrean zehazten den bezala, legearen helburua aurreko hamarkadetan munduak jasan dituen transformazioen ondorioz, garaiko bizitza lokalak dituen arazoei konponbide bat ematea da⁵⁷. Izan ere, garai hartan, Espainiaren eta munduaren egoera historiko, sozial eta ekonomikoak aldaketa sakonak ekarri zituen eta ondorioz, indarrean zeuden erregimen lokalaren printzipioek aldaketa horiei aurre egiteko, moldatzeko beharra ikusi zuten. Hala ere, 1975. urtera artea ez zen lege hau sortu, eta honen arrazoi nagusia diktadura frankista izan zen.

Aurreko inguruabar baldintzatzaileen ondorioz, lege honetako Oinarriek udalerrri eta probintziaren oinarritzko alderdiak arautzen dituzte. Horrela, legeak toki erregimenaren oinarri konstituzionalak ordezkatzeko bideak zehazten ditu soilik, prozedura eta hauteskunde sistema ukitu gabe, hauek legegile arruntaren eskuetan utziz. Gainera, udal eta probintzia entitateak lurraldetzat definitzen ditu, helburu pluralak dituen eta deszentralizazio eta autonomia printzipioek oinarritzen dituztenak. Deszentralizazioari

⁵⁶ TEOLren 115. artikulua: “La fiscalización externa de las cuentas y de la gestión económica de las entidades locales corresponde al Tribunal de Cuentas, con el alcance y condiciones que establece la Ley Orgánica que lo regula y sin perjuicio de los supuestos de delegación previstos en la misma.”

⁵⁷ Toki Erregimenaren Estatutuko oinarrien 41/1975 Legearen Hitzaurreko X. puntua

dagokionez, legearen hitzaurrean zehazten da hau administrazio antolakuntzaren printzipioa izateak, berekin Estatuko administrazio esfera ezberdinei nortasun juridiko eta ekonomikoa esleitzea dakarrela, deszentralizazio maila ezberdinak zehaztuz.

Doktrinaren ustez, lege hau berandu heldu zen, eztabaida eta proposamen asko zituen atzetik eta orokorrean, eraginkortasun erreala izateko traba politiko asko jasan zituen legea izan zen, Franko diktadorearen erregimen politikoaren heriotza pare bat eguneko kontua baitzen.⁵⁸

Edukiari dagokionez, gaur egun indarrean ez dagoen lege bat den heinean, ez da sakonki aztertuko. Lehen Oinarrian udalerrri eta probintziaren definizioa eta elementuak finkatzen dira⁵⁹. Ondoren, elementu hauen zehaztapenak ematen dira hurrengo oinarrietan, eta aipatzea da, biztanleria zehazterako orduan, bi egoera ezberdintzen direla, izan ere, udalerrriaren biztanleek egoiliar edo iragaitzazko bidaiarien egoera izango dute, lehen kasuan bi mota ezberdintzen direlarik: auzotarra eta egoitza duena.

Hurrengo oinarrian, udal-barrutia den udalerrriaren hurrengo elementua xedatzen da. Legearen arabera, lurralde nazionalaren osotasuna udalerrrietan banatzen da, eta bakoitza, ahal den neurrian, etengabea izan behar da. Horrez gain, legeak lurralde aldaketa onartzen du, zeina gehitze, fusio, segregazio edo agregazio bidezkoa izan daitekeen. Hala ere, aldaketa hau emateko izaera demografiko, ekonomiko, sozial, urbanistiko edo administratiboko beharrezkoa baldintzak egon behar direla xedatzen du legeak. Gainera, aipatzekoa da garai hartan ere udalerrien batzeen aldeko politikaren isla ikus daitekela, artikulua gehitze, fusio eta agregazioak suspertuko direla xedatzen baitu.

Aldaketaren prozedurari dagokionez, legeak aldaketa Ministroen Kontseiluak onartuko duela xedatzen du, Herrizaintza Ministroaren eskariz, eta espedientean informazio publikoa, eragindako udalerrien akordioa, dagokion Aldundiaren audientzia eta Estatu Kontseiluaren irizpena halabeharrezkoak izan beharko dira. Hala ere, akordio hartzeko beste bide bat aurreikusten du legeak, hau da, udalerrriaren aldaketaren akordioa ofizioz Gobernuak eman ahal izango du, aurretiazko informazio publikoarekin, eragindako udalerrien eta dagokion Aldundia probintzialaren audientziarekin eta Estatuko Kontseiluaren irizpidearekin. Kaltetutako udalerrri guztiak aldaketaren kontra agertzen

⁵⁸ Vid. BARRANCO VELA, R. (1993). *Creación y...* op. cit., 103-104 or.

⁵⁹ 41/1975 Legeko Lehen Oinarriko 5. atala: "Los Municipios y las Provincias, entes territoriales, tienen personalidad jurídica y plena capacidad para el cumplimiento de sus fines peculiares, en los términos legalmente establecidos, sin perjuicio de sus funciones cooperadoras en los servicios del Estado. Su posición en el ordenamiento jurídico y su actuación se inspiran en los principios de descentralización y autonomía, dentro de los límites de esta Ley".

badira, aldaketa aurrera eramango da soilik 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerria bada edo aldameneko udalerrien artean hiri-multzo bakarra egin nahi bada, eta bi kasuetan, udalak duen aurrekontuaren zenbatekoa oinarrizko zerbitzu publiko minimoak sostengatzeko behar adinakoa ez bada emango da aldaketa.

4.3.1.2. Toki Erregimenaren Oinarrien 7/1985 Legea, apirilaren 2koa

Frankoren erregimena desagertu eta gero, hainbat arau partzial onartu ziren, baina hauetako oso gutxi eragin zioten aurreko legeari legegintza garapenean. Baina, behin Konstituzioa onartuta, bere lehen artikuluan oinarrituz, Espainia estatu demokratiko eta konstituzional batean bilakatzen da, eta 1985eko Legea onartzen da.

Legearen edukiari dagokionez, aurreko legearekiko konparatuz, zehatzagoa da, eremu askotan legegileak garaiari egokituta egoera ezberdinak xedatu ditu eta aurreko legeetan barneratutako arauak zehaztu ditu. Horrela, II. Tituluan, nahiz eta udalerraren nortasuna eta elementuak berdinak izan, hauek zehazterakoan aldaketak eman dira. Lurraldeari dagokionez, 11. artikuluan, gaur egun daukagun definizioa xedatzen da, hau da, udal-mugartea udalak bere eskumenak burutzeko hartzen duen lurraldea da.

Legeak udal lurraldearen aldaketei emandako garrantziari dagokionez, BARRANCO VELAREN iritziz, nahiz eta Toki Erregimenaren Oinarrien inguruko Legeak, oro har erregimen lokalaren arauketan oinarrizko aurrerapauso bat eman duen, udalerrien sortzearen gaian, eta aldaketen inguruan orokorrean, ez du inolako aurrerapausorik eman. Honek ez du esan nahi legeak lurralde erreforma debekatzen duenik, baina ez du espreski eta, testuingurua kontuan hartuz, behar litzatekeen bezala sustatzen.⁶⁰ Lurraldearen aldaketa hau TEOLren 13. artikuluan barne biltzen da⁶¹, eta artikulua honek aurreko legediarekin konparatuz aldaketak dakartza, aipagarriena, autonomia erkidegoen eskumenaren aitortza delarik. Horrez gain, bigarren puntuak ere berritasuna dakar, izan ere, udalerririk berriak sortzeko, lurraldez bereizitako biztanle guneak izan beharko dira, eta sortutako udalerririk udal eskumenak betetzeko nahikoa baliabide dutela bermatu beharra dute, aurretik betetzen ziren zerbitzuen kalitatea maila txikiagoan ez uzteko.

⁶⁰ Vid. BARRANCO VELA, R. (1993). *Creación y...* op. cit., 125 or.

⁶¹ TEOLren 13. artikulua dio “udalerririk sortu eta ezabatzea, zein udal-mugarteak aldatzea, toki-araubideari buruzko autonomia-erkidegoetako legediak arautuko ditu, baina udal-mugarteak aldatzeak inola ere ez du probintzietako mugak aldatzerik ekarriko. Nolanahi ere, udalerririk interesdunei entzun beharko zaie eta Estatu-kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako gobernu-kontseiluen organo aholku-emaile gorenaren irizpena beharko da, halakorik balego. Irizpen hori eskatzen den aldi berean Estatuko Administrazio Orokorrari jakinaraziko zaio.”

Udalerriaren elementu den biztanleria ere, aldatu egiten da, jada ez baita egoiliar, auzotar, egoitza dutenak eta bidaiari iragaitzak ezberdintzen, legeak, gaur egun indarrean dagoena xedatzen du: Espainian bizi den pertsona guztiak ohiko bizilekua duen udalerriko erroldan inskribatu behar direla, eta udalerriko erroldan inskribatutako pertsonen multzoak osatzen duela udalerriko biztanleria. Gainera, lege honen bidez erroldan inskribatzeko betekizunak eta prozedura xedatzen dira.

Azken elementuari dagokionez, udalerriaren antolakuntza era zehatzago batean zehazten da lege honetan, izan ere, Kapitulu oso batean zehazten da, zeinak udal gobernuaren eraketa, arauak eta eskumenak xedatzen dituen.

Hala ere, kontuan izan behar da TEOLek bere azken xedapenetako lehenak urtebeteko epean eta testu bakar batean indarrean dauden lege xedapenak bat egiteko baimena ematen diola Estatuko Gobernuari. Horrela, baimen hori baliatuz, 1986ko apirilaren 18an 781/1986ko Errege Dekretu Legegilea onartzen da, erregimen lokalaren materian indarrean dauden lege xedapenen testu bateratua onartzen duena.

Hala ere, arau hau ez da aztertuko, nagusiki bi arrazoiengatik: alde batetik, arau honen argitaratzeak atzerapauso bat dakarrelako, berriro TEOL eta Konstituzioarekin bat ez datozen hainbat kontzeptu errepikatzen baitira, eta horren ondorioz, arau honen hainbat aspektu konstituzio kontraktat jo dira (Auzitegi Gorenaren Epaia 2000/3878)⁶². Bestetik, Errege Dekretuaren 7. Azken Xedapenari jarraiki, Autonomia Erkidegoentzako araudia hau ordezkoa da, salbuespenez artikulua batzuk zerrendatzen dituelarik. Hala ere, udal lurraldearekin erlazionatutako zerrendatutako artikulua oinarritzko legediaren bitartez xedatutako esanahi berdina dute⁶³.

4.3.1.3. Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunaren 27/2013 Legea, abenduaren 27koa

Erreforma hau 2011. urtean Espainiar Konstituzioko 135. artikulua aldaketaren aitzakipean egin zen⁶⁴. Izan ere, honen ondorioz Aurrekontuen Egonkortasuna eta

⁶² AGE edo Auzitegi Gorenaren 2000/3878 Epaia, 2000ko maiatzaren 10ekoak adierazten du 1985 Toki Erregimenaren Oinarrien inguruko Legea 1986ko Testu Bateratuaren gainera dagoela, azken hauen xedapenak Espainiar Konstituzioa baino arinagoak dira eta hortaz, demokratikoa ez den epe eta erregimen politiko batetakoak.

⁶³ 781/1986 Errege Dekretuaren 7. Azken Xedapenak dio “1. De conformidad con la Disposición transitoria primera de la Ley 7/1985, de 2 de abril:

a) Tienen carácter básico, en las materias reguladas por los cinco primeros títulos, los artículos 1; 2; 3.2; 12; 13; 14; 15; 16; 18; 22, inciso primero; 25; 26; 34; 48; 49; 50; 52; 54; 56; 57; 58; 59; 69, y 71.”

⁶⁴ BOIX PALOP, A. (2014). «Sentido y orientación de la Ley 27/2013 de racionalización y sostenibilidad de la Administración local: autonomía local, recentralización y provisión de servicios públicos locales », *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica (REALA) Nueva Época*, 2. zk., 2014ko uztaila-abendua, 27-47 or.

Jasangarritasun Finantzarioaren inguruko 2/2012 Lege Organikoa onartu zen, eta honek aldi berean, Administrazio lokalaren materian, oinarritzko legedian aldaketak egin beharra eskatu zuen, aurrekontuen egonkortasuna, jasangarritasun finantzarioa eta baliabide publiko lokalen erabilera eraginkorraren printzipioak errespetatzeko. Hau oinarrian egonda, legearen hitzaurrean zehazten den modura, toki administrazioen antolakuntza eta funtzionamendua aldatu behar dira, bai eta kontrol ekonomiko-finantzarioa hobetu ere bai.

Erreforma honen bidez legean hainbat aldaketa egin dira, eta aldaketa garrantzitsuenak jasan dituen udalerriaren elementua lurraldea izan da. Hain zuzen, lege honen bitartez, udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeek, toki erakundeei aitortzen zaien nortasun juridiko propioaren baldintza galtzen dute, udalerri berrien sorrerari baldintza bat gehitzen zaio eta udalerrien arteko borondatezko bateratzearen inguruko markoa ezartzen da. Aipatutako lehen aldaketa, udalerriaz azpiko lurralde eremua duten erakundeek toki erakundeen baldintza galtzea 3. artikuluko aldaketaren ondoriozkoa da, aurreko legean, hauek 3.2. atalean zehaztuta baitzeuden⁶⁵. Erreforma honen bidez, atal horretako a) puntua ezabatu egiten da, eta horrekin batera atal horretan aipatzen den 45. artikulua ere edukiz hustu egiten da. Artikulu honen ordean, legean erakunde hauen inguruko artikulua berri bat barneratzen da, 24. bis. artikulua⁶⁶.

Bigarren aldaketa TEOLko 13. artikulua aldatuz gauzatu da, izan ere, udalerri berrien sorrera ahalbidetzen duen xedapenari hainbat berrikuntza sartu zaizkio. Artikuluko lehen aldaketa audientziaren betekizunean sartu da, izan ere, aurrez eskatzen ziren udalerri interesatuen audientzia eta Estatuko Kontseiluaren edo Autonomia Erkidegoetako Gobernu Kontseiluen organo aholku-emaile gorenaren irizpenaz gain, tutela finantzarioa gauzatzen duen administrazioaren txostena beharrezkoa izango da. Horrez gain, baldintzei dagokionez, aurreko xedapenarekin alderatuz, bi betekizun berri gehitu zaizkio artikulua arautzen duen baldintza materialari, izan ere, erreformaren ostean, udalerri baten sorrerarako, aurreko baldintzez gain, 5.000 biztanleko udalerria izatea eta sortuko diren udalerriak finantzarioki jasangarriak izatea xedatzen da⁶⁷. Azken baldintza honen

⁶⁵ 7/1985 Legeko 3.2. artikulua dio “Toki erakunde dira hauek ere: Lege honetako 45. artikulua araberako autonomia-erkidegoek eratu edo onartutako udalerria baino lurralde-eremu txikiagoko erakundeak”.

⁶⁶ 24 bis. art.: “Las leyes de las Comunidades Autónomas sobre régimen local regularán los entes de ámbito territorial inferior al Municipio, que carecerán de personalidad jurídica, como forma de organización desconcentrada del mismo para la administración de núcleos de población separados, bajo su denominación tradicional de caseríos, parroquias, aldeas, barrios, anteiglesias, concejos, pedanías, lugares anejos y otros análogos, o aquella que establezcan las leyes”.

⁶⁷ 13. art.: “la creación de nuevos municipios solo podrá realizarse sobre la base de núcleos de población territorialmente diferenciados, de al menos 5.000 habitantes y siempre que los municipios resultantes sean

inguruan, Auzitegi Konstituzionalak, 41/2016 Epaiak dio finantzarioki sostengarriak diren kasuetan herri berriak sortzeko betekizuna, Konstituzioko 31.2., 103.1. eta 135. artikuluetatik eratortzen ez bada, udal eredu espainiarra diseinatzeko estatu-kompetentziaren barnean sartzen dela. Gauza bera dio biztanleria minimoaren finkatzeari dagokionez, Estatuak, Konstituzioko 149.1.18. artikuluan oinarrituz, udal eredia garatu dezake, betiere hau beharrezkoa bada udalerriei eta beraien autonomiari esleitu zaizkien eskumenen erabileran bideragarritasuna bermatzeko.

Azken berritasuna 13. artikuluan 3 atal berriren gehitzearekin eman da, zeintzuek borondatezko fusioaren inguruko markoa xedatzen duten. Legeak, hitzaurrean dioenez, lehen aldiz udalerrien borondatezko bat egitea sustatzeko neurri zehatzak barneratu ditu, horrela egiturak arrazionalizatu eta udalerrien maparen atomizazioa gainditu daitezkelako. Neurri horien artean aurkitzen dira finantzazioaren gehikuntza, kooperazio lokalen planen edo diru-laguntzen esleipenean lehentasuna, edota biztanleriaren areagotzea dela eta, derrigorrezko zerbitzu berrien prestazioen dispensa.

4.3.2. Bizkaiko Foru Arauak

4.3.2.1. Bizkaiko Udal mugarteen 1993/8 Foru Araua, uztailaren 8koa

1987/2 Foru Araua, Bizkaian 80. hamarkada bukaeran emandako desanexio ekimenak gauzatzeko tresna izan zen. Hala ere, behin 6 urteko indarraldiaren ostean, 1993/8 Foru Araua onartzen da, aurrekoa indargabetzen duena. Arau honen bidez, lurralde jarratasun eza duten supostuen gainditzea lortu nahi da, auzotarren behar eta espektatibei dagokien udalerrri mapa bat eta zerbitzu publiko lokalen prestazioen eraginkortasuna lortzeko helburuarekin. Udal lurraldeen aldaketari dagokionez, arau honek aurrekoarekiko duen aldaketarik handiena, arauaren Hitzaurrean adierazten den bezala, udal lurraldearen aldaketa supostuak emateko baldintza material eta formalak zehaztu zirela da⁶⁸.

Edukiari dagokionez, arau honek, bere lehen tituluan udalerrien inguruko xedapenak jasotzen ditu. Lehen kapituluan, xedea eta udalen parte hartzearen inguruko xedapen orokorrak arautzen dira. Horrela, 1. artikulua dioenez, arau honen xedea Bizkaiko udalerrri guztien eta bakoitzaren inguruko erlazioetan sortu daitezkeen arazoak arautzea da, izaera lokaleko zerbitzu publikoen prestazioetan arrazionaltasuna, eraginkortasun eta

financieramente sostenibles, cuentan con recursos suficientes para el cumplimiento de las competencias municipales y no suponga disminución en la calidad de los servicios que venían siendo prestados”.

⁶⁸ Bizkaiko udal mugarteen 1993/8 Foru Arauak Hitzaurreko II. puntuan dio ”El título tercero se halla dedicado a la disciplina sin duda más importante de las contenidas en esta Norma Foral: la alteración de los términos municipales. Se contemplan los ya tradicionales supuestos de alteración, si bien, se precisan en lo posible los requisitos sustantivos y formales que conduzcan a su materialización.”

efizientzia eskakizunak kontuan izanik. Udalerrien esku-hartzearen inguruan, 2. artikuluan Bizkaiko Lurralde Historikoen udalerriek beraiekin erlazionaturiko gaitan esku hartzeko eskubidea bermatzen diete, jarduera publikoaren ezaugarriak eta kudeaketa gaitasuna kontuan izanez eskumenak esleituz. Bigarren kapituluaren udalerriaren kontzeptua, eskumena eta Bizkaiko udalerrien mapa zehazten dira. 3. artikulua arabera, udaltxeak bere eskumenak gauzatzen dituen lurralde eremu jarraituari udalderri deritza. Kapitulu honetako beste artikulua garrantzitsu bat eskumenei dagokion 5. artikulua da, izan ere, honen arabera, Foru Arau honetan aurreikusten diren espediente administratiboen azterketa, txosten eta proposamenak udal-mugapearen gaian eskumena duen Foru Sailari dagokio.

Bigarren Tituluan, udalerrien mugapena eta zedarritzea arautzen dira, lehen kasuan mugapena zer den eta noiz ematen den, behin-betiko izaera eta naturan oinarritutako arazoengatik handitze edo txikitze kasuak xedatzen dira. Zedarritzeari dagokionez, araudia sakonagoa da eta Sailetan banatuta, honen definizioa, prozedura eta zedarriztatzea zehazten dira.

Hirugarren Titulua 20 eta 50. tarteko artikuluek osatzen dute eta udalerrien aldaketei buruzkoak dira. Lehen kapituluaren, xedapen orokorrak jasotzen dira, zeinak aldaketen definizioa eta mugak diren. 20. artikulua udalerrien aldaketaren definizioa ematen du eta honen arabera, Foru Arau honetan aurreikusitako ondoretarako, udalerrien aldaketatzat ulertzen da hainbat supoziori aukera ematen dioten prozedura eta erabaki administratibo multzoari. Legeak lau supostu bereizten ditu: 1) udalderri zati baten edo batzuen segregazioa berri bat eratzeko; 2) udalderri baten edo batzuen zati baten segregazioa beste udalderri mugakide bati edo batzuei gehitzeko, 3) Udalderri mugakide bat edo batzuen fusioa berri bat eratzeko, eta 4) Udalderri bat edo batzuk beste udalderri mugakide bat edo batzuetara eranstea edo gehitzea berri bat eratu gabe. Hala ere artikulua udalerrien aldaketari muga bat ezartzen dio, izan ere, udalerrien aldaketak inoiz ezingo du udal mugarte ez jarraitu bat sortzeko aukera eman. Hurrengo artikulua aldiz, udalerrien aldaketen mugak ezartzen ditu: “(...) la alteración de los términos municipales exigirá que el municipio o municipios resultantes dispongan de recursos económicos, de carácter ordinario, suficientes para la adecuada gestión de los servicios públicos locales cuya prestación les competiere”.

Bigarren kapituluaren, udalerrien aldaketen supostu bakoitzak bete behar dituzten betekizun zehatzak xedatzen dira, zeinak sailetan bereiztuak dauden. Azpimarratzekoa da udalerrien aldaketen kasu guztietan supozizioak arautzen direla, salbu udalderri berri bat

eratzeko beste udalerrri baten edo batzuen zati baten segregazioaren kasuan, izan ere, kasu horretan udalerrri berria eratu ahal izango da soilik betekizun guztiak metatuta ematen badira. 22. artikulua arabera, segregatuko den udalerrriak beharrezkoa duen erdigunea edo erdiguneak, bereizi nahi den udalerrri edo udalerrriek duten erdigunetik bereizita egon behar dira. Bereizitako biztanlegunearen definizioa 23. artikulua ematen du, zeinaren arabera, segregatzeko objektu den udalerrriaren erdigunea, lurraldeari dagokionez segregatuko den udalerrriaren erdigunetik bereizita egongo da bien artean, urbaezintzat sailkatutako 3.000 metroko distantzia minimoa dagoenean. Artikuluak, distantzia zelan neurtu beharko den eta hirigintza plangintza ez dagoenean zoru urbaezina zelan zehaztuko den arautzen du⁶⁹.

Horrez gain, 22. artikuluko hurrengo betekizuna, segregazioaren ondoriozko udalerriek ohiko baliabideak eskaini eta zerbitzuen prestazio eta betebeharrak publikoak gain, garapen demografiko eta soziologikoa aurrera eramateko lurralde azalera nahikoa eduki behar dituela da. Honen zehaztasunak 24 eta 25. artikuluetan zehazten dira, lehenak baliabide ekonomiko nahikoa zer den zehazten du: “... se entiende que los Municipios resultantes de la segregación cuentan con los recursos suficientes para el cumplimiento de las competencias municipales y la prestación de los servicios públicos locales correspondientes, cuando la media de los recursos ordinarios que se han generado en cada uno de los territorios, en los últimos cinco presupuestos municipales, es superior al costo económico anual de la atención de aquellos.”. Bigarrenak azalera nahikoaren definizio ematen du, zeina kilometro karratuko zuzenbidezko biztanlerian neurtutako dentsitatea, bere eremu geografiko berdina duten dentsitate berdina edo gutxiagokoa izan behar den. Hurrengo betekizuna prestazioen kalitatean datza, izan ere, 22.c. atalak zehazten du segregazioak ezin duela segregatutako zati horretan ematen ziren zerbitzuen batezbesteko kalitatea gutxitu edo degradatu. Honen inguruan 26. artikulua dio segregazioak ez dituela zerbitzuak gutxitzen segregatutako udalerriko ohiko diru-sarrerara per capita bere eremu geografikoko udalerriek dutenaren %90 edo handiagokoa denean.

Beste udalerrrien aldaketen kasuan, hauek emateko supostuak araudian zehazten dira, eta oso antzekoak dira denak. Kasu hauetan, supostuetako bat ematea nahikoa da aldaketa

⁶⁹ Bizkaiko udal mugarteen 1993/8 Foru Arauko 23. artikulua zera dio “La acreditación de la distancia prevista en el párrafo primero de este artículo, se realizará por medición de la que separa en línea recta las dos edificaciones más próximas entre sí, cada una de las cuales se halle en uno de los núcleos implicados. En el supuesto de que los dos núcleos afectados dispongan de delimitación urbana legalmente aprobada, se estará a la distancia entre los puntos más cercanos entre sí de sus respectivos límites. Si sólo uno de ellos dispone de tal delimitación urbana legalmente aprobada, la medición se realizará entre el límite de la misma, en su punto más próximo al otro núcleo, y la edificación más cercana al mismo de éste”.

aurrera eramateko, izan ere, hauek barneratzen dituzten artikulua guztietan azpimarratzen da “siempre que concurra alguno de los siguientes supuestos” esaldia. Hala ere, kasu bakoitzean ezaugarri batzuen definizioak ematen dira, supostu ezberdinak zehaztasunez xedatzeko. Horren adibide da 28. artikulua, hiru aldaketen kasuetan erdigunearen nahasketa zer den zehazten duena: biztanleguneak erdigune bakarria osatzen dutela ulertzen da eraikuntza, hornikuntza publikoak eta sistema lokalen azpiegiturak jarraitasun batean kokatuta daudenean, lege mugatu daitekeen erdigune hirigintzagarri bat eratuz.

3. Irudia: Udalerrien aldaketen kasuak emateko supostuak

<p>UDALERRI BATEN EDO BATZUEN LURRALDE ZATI BAT BANATZEA, UDALERRI MUGAKIDE BATI EDO BATZUEI ERANSTeko (27.art.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ekimenaren ondoriozko udalerrri eraginduen zerbitzu publikoen kudeaketa egokiak baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak edukitzea eskatzen dituztenean eta udalerrietako batek ezintasuna duenean. • Udalerrri ezberdinei dagokien hiri erdigune bi edo gehiagok bakarria osatzen dutenean eta ondorioz aldaketak errealitate sozio-ekonomikora egokitzeak dakarrenean. • Ordena demografiko geografiko, ekonomiko edo administratiboko baldintzek gomendatzen dutenean.
<p>ZENBAIT UDALERRI MUGAKIDEK BAT EGITEA BESTE UDALERRI BAT ERATZeko (29. art.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Indarrean dagoen araudiaren arabera, aldaketaren ondorioz, eragindako udalerririk beraien zerbitzu publikoen kudeaketa eta eskumen administratiboak aurrera eramateko baliabide ekonomiko, material eta pertsonalak ez dituztenean. • 28. artikuluan zehaztutako kontuan hartuz, udalerrri bakoitzaren biztanleguneak jarraitasuna duen erdigune bakarria osatzen dutenean. • Udalerrri interesatuek borondatez horrela adosten dutenean.
<p>UDALERRI BAT EDO BATZUK UDALERRI MUGAKIDE BATI EDO BATZUEI ERANSTEA, UDALERRI BAT ERATU GABE (34. art.)</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Xurgatua izan behar duen udalerririk ez duenean arduratu behar den zerbitzu publiko lokalak aurrera eramateko baliabide ekonomiko, material edo pertsonal nahikorik. • 28. artikuluaaren arabera, udalerrien biztanleguneak hirigune bakarria osatzen dutenean.

Egilea: Norberak sortua

Bigarren kapituluaren udalerrien aldaketaren prozedura zehazten da, prozeduraren inguruko xedapenek ekimena, udal esku-hartzea, akordio proposamena eta ebazpena

barne biltzen dituztelarik. Horrez gain, udalerriak aldatzearen ondorioz sortzen diren toki-korporazioetako kideen araubide iragankorra xedatzen da.

Prozeduraren hasiera ekimenarekin hasten da, eta honi dagokionez, udalerrien aldaketa erakunde ezberdinek sustatu ahal izango dutela xedatzen du legeak: eragindako udalerrri edo udalerriak, Bizkaiko Batzar Orokorrak, Foru Aldundia edota gutxienez, aldaketa janago duen lurralde eremuaren zuzenbidezko herritarren %50 ordezkatzen duten auzotar egoiliarren eskariz (kasu honetan auzotarrek Batzorde Eragilea eratu beharko dute). Ekimena idatziz aurkeztu beharko da, bertan gutxienez honen objektua, lurralde mugak eta eragindako eremua, kausa eta legezko justifikazioa zehaztu beharko direlarik; eta auzotarren ekimena den kasuetan, udal idazkariak biztanleria baldintzaren betekizuna eman dela egiaztatzen duen ziurtagiria igorri beharko du (36. art.).

Ekimen idazkia Bizkaiko Foru Aldundiaren dokumentuen sarrera erregistroan aurkeztu beharko da, edota dagokion Udaletxean, zeinak jaso eta gehienez hurrengo 5 egun gaietan eskumena duen Foru Sailari igorriko dio. Behin idazkia igorrita, udal demarkazioari dagokion Foru Sailak hurrengo 3 hilabetetan, aldaketaren legezko bideragarritasuna erabakitzeke beharrezkoak diren azterketa teknikoak egingo ditu, eta aldaketaren ekintzaileekin eta eragindako udalerriekin audientzia egin ostean, Foru Aldundiari bere ebazpen proposamena helaraziko dio. Azken honek, hilabeteko epean dagokion erabaki egokia hartuko du eta hau interesdunei bidaliko die (38. art.).

39. artikuluari jarraiki, Foru Aldundiaren erabakia aldaketaren aldekoa bada, hau erabakitzeke beharrezko datu, txosten eta azterketa gehigarriak prestatu beharko dira. Behin hauek eginda eta espedienteak beteta, hau eragindako udal edo udalei bidaliko zaie ekimenaren alde edo kontra jartzeko eta legeak ezarritako *quorum*-arekin espedientearen agertzen diren auzotar interesatuekin negoziazioak hasteko. Udal akordioa eta negoziazioen amaieraren epea 2 hilabetekoa da, zeina espedientearen kopia udal erregistroan sartzen denean zenbatzen hasten den (40. art.).

41. artikulua prozeduraren inguruko informazio publikoa eta audientziaren epeak zehazten ditu. Informazio publikoari dagokionez, udal mugapenen inguruko eskumena duen Foru Sailak, gehienez 30 egun gaietan informazio publikoa sustatuko du, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta gutxienez eragindako udalerrian hedapen handiena duen aldizkarian iragarki bat jarritz.

Audientziari dagokionez berriz, epe berdinean, edo horrela iristen bada hurrengo 15 egun gaietan, zuzenean eragindako udalerriei audientzia emango zaie. Hau egiteko

komunikazioa idatzizkoa izan behar dela zehazten du legeak, eta eragindako udalek harrera jaso dutela ziurtatu beharko dute.

Behin aurreko guztia bukatuta, Foru Sailak akordio proposamena egin eta Diputatuen Kontseiluari igorriko dio (42. art.) eta honek proposamenaren inguruan erabaki beharko du, erabakia aldekoa bada, proposamena Batzar Nagusiari bidaliko dio (43. art.). Honek, aldi berean, aldaketaren akordio proposamena erabaki beharko du, zeina espedientean interesdun bezala agertzen diren guztiei igorri beharko zaien. 44. artikularen arabera, Batzar Nagusiak aldaketaren aldeko erabakia ematen duen kasuan, hau Bizkaiko, Autonomia Erkidegoko eta Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, komunikazio idazkia Estatuko eta Autonomia Erkidegoko Administrazioari igorritz.

Prozeduraren amaiera espedientearen ebazpenarekin ematen da, eta hau aldekoa den kasuetan legeak zenbait aspektu zehaztu behar direla xedatzen du: 1) Udalerri berriaren izena, 2) Hiriburutza ezarriko den biztanlegunea, 3) Eragindako udalerrien muga berriak, 4) Ondasun, eskubide, akzio, erabilera publiko, obligazio, zor eta kargen banatze proposamena, baita aldaketan exekuzio egokia aurrera eramateko beharrezkoa den beste gaiena, 5) Zerbitzu publiko lokalen prestazioa arautuko duen oinarriak finkatzea, 6) Dokumentazio administratibo, lan pertsonalaren eta funtzionarioen eraentzaren inguruko xedapenak onartzea, eta 7) Aldaketarengatik eragindako organo eta erakundeen arteko asistentzia eta lankidetzak akordioak (45. art.).

Horrez gain, akordioaren exekuzioa Foru Aldundiari dagokiola zehazten du legeak, nahiz eta eragindako udalen kooperazio eta lankidetzak ere onartzen den. Prozeduraren inguruko azken artikulua, 47. artikulua, funtsezko betekizunen akreditazioa zehazten du, zeina Diputatuen Kontseiluak Bizkaiko Batzar Orokorrei igorri behar dien ebazpenaren aurretikoa izan behar den⁷⁰.

Udalerriak aldatzearen ondorioz sortzen diren toki-korporazioetako kideen araubide iragankorra 48 eta 50. artikulua bitartean zehazten da. Aipatutako lehenengo artikulua segregazioaren ondoriozko udalerri berrien administrazioaren arduraduna nor den xedatzen du, zeina Batzorde Kudeatzailea den⁷¹.

⁷⁰ 47. artikulua zera dio "La acreditación del cumplimiento de los requisitos fundamentales exigidos por la presente Norma Foral y disposiciones que ese dicten en su desarrollo para cada uno de los supuestos de alteración de términos municipales, se realizara documentalmente antes de la adopción, por el Consejo de Diputados, del acuerdo de elevación de su propuesta a Juntas Generales de Bizkaia".

⁷¹ 48. artikularen arabera, segregazioaren ondoriozko udalerri berriak Bizkaiko Foru Aldundiaren organo eskumendunak izendatutako batzorde kudeatzaile batengatik eraendu eta kudeatuko dira, lurralde segregatuaren azken hauteskundeetako mahaien emaitzen arabera.

Fusioen kasuan, udalerrri inplikatuena alkate eta zinegotzietan aldaketa ematen den momentuan automatikoki kargua utziko dute, eta Foru Aldundiak kudeatzaile bat izendatuko du, zeinak araudiaren arabera udalerrri berriari dagokion zinegotzien kopuru berdinez osatutako batzordekideak edukiko dituen. Azkenik, segregazio partzialaren kasuan, aldaketa jasan duten udalerrriek beraien udalkideen zenbakia legearen arabera adostu beharko da, eta artikulua udalerrria handitu edo txikitzearen ondoriozko aldaketak zelan egingo diren arautzen du (50. art.).

Foru Arau honek, hurrengo tituluetan lurralde kokalekuak; toki-erakunde txikiak; toki-erakundeen izena, armarrria, bandera eta udalburua; udalerrrien fusioen eta kokalekuen zuzenketen sustatzea eta Bizkaiko toki-erakundeen erregistro foralaren inguruko araudia zehazten da.

4.3.2.2. Bizkaiko Lurralde mugapenen 2012/9 Foru Araua, abenduaren 5koa

Nahiz eta 1993eko Foru Arauak bere garaiko arazoak konpondu izan, denbora pasata, beste egoera batzuk sortu izan dira eta kontzientziario handiagoa sortzen da eskura dauden baliabideak hobeto erabiltzeko. Foru Arau honen hitzaurrean adierazten denez “(...)aurreko arauan zeuden prozedura batzuk berariaz ezabatu dira, ekonomikoki kaltegarria den lurralde-disgregazioa eragozteko, izan ere, epe luzera jo gabe, orain ere badaukartza bideragarriak ez diren kostu batzuk.” Aurreko arauan ikusi izan dugunez, prozedurak sustatzeko hainbat eragile kontuan hartzen ziren, horrek prozeduren zehaztasun eza zekarrelarik. Arau berri honekin, legegileak foru arauan arautzen diren prozedura guztiak bideratzeko eskumenak administrazio bakarrak (udalak) dituela xedatzen du, eta prozedura hauek zehaztasun maila handiagoarekin xedatzen dira.⁷²

Edukari dagokionez, nahiz eta Foru Arauko I. Titulua 1993ko Foru Arauarekiko ezberdina den (aurrekoan udalerrria deitzen zena orain Foru Arauren helburuak deitzen baita), barruko egituraketa eta edukia berdinak dira. Hala ere, araudi honetan berritasun bat barneratzen da xedarean artikuluan (1.art.), izan ere, arauak zehazki xedatuko dituen alderdiak zehazten dira: Udalerrrien mugak zedarritzea, udalerrrien lurralde-mugak ezagutzea, udalerrriak aldatzea eta Bizkaiko toki-erakundeen izena, armarrria, bandera, titulu bereizgarriak eta udalburua.

⁷² Bizkaiko Lurralde Mugapenei buruzko abenduaren 5eko 9/2012 Foru Arauren Hitzarmeneko I. puntuak hala zehazten du “Aldaketa funtsezkoa da, bai sistematika berriak dakarren prozedurari dagokionez bai prozedurak abiarazteko ahalmenari dagokionez. Izan ere, udalerrriak subiranoak dira araudi honen babesean arautzen diren gai guztietan. Ondorioz, haien gobernu-organoen berariazko egintza ezinbestekoa da edozein jardura egin ahal izateko.”

II. Tituluak udalerrien mugatzea eta zedarritzea arautzen du, baina, zehaztasun handiagoarekin xedatzen ditu bai udalerriak mugatzearen definizioa baita zedarritzearen prozedura ere. Lehen kasuan, udalerriak mugatzearen barruan, muga-lerro eta behin-behineko muga-lerroen arteko bereizketa zehazten du 5. artikulua⁷³. Udalerrien mugak zedarritzearen prozedurari dagokionez, zehaztasun gehiagoz arautzen da aurreko arauan xedatutako prozedura, eta horrez gain, artikulua berriak gehitzen dira araudi honetan. Artikulu hauek mugak zedarritzeko batzordea ez eratzearen ondorioak, mugak zedarritzeko jardueretara ez agertzearen ondorioak, mugak zedarritzeko jarduerak amaitzea, aktak onartzea eta Bizkaiko Foru Aldundiari bidaltzea eta honen entzunaldia zehazten dute.


Hurrengo tituluak, udalerriak aldatzeari dagokionak, kapitulu ezberdinetan udalerriak aldatzearen xedapen orokorrak, kasuak, udalerriak aldatzeko prozedura, toki-korporazioetako kideen araubide iragankorra eta izapidetzen ari diren espedienteen araubide iragankorra zehazten ditu. Udalerriaren xedapen orokorren kasuan, hainbat aldaketa garrantzitsu jasan izan ditu legediak. Aldaketarik garrantzitsuena eta gerora aldatzeko eskatuko dena kontzeptuan datza, izan ere, udalerrien aldaketa kasuen supostuak zerrendatzean, aurreko legedian dauden suposizioak zerrendatzen dira 27. artikuluan, bat izan ezik: udalerririk independente bat eratzeko udalerririk baten edo batzuen segregazio supostua ezabatu egoten da. Honekin batera, 27.2. artikuluan berrikuntza bat sartzen da, izan ere, honen arabera lurralde zati bat ez da inoiz ere bananduko udalerririk independente bat eratzeko.

Gainera, supostu berri bat barneratzen da artikuluan “udalerririkaren eremua handitzea edo txikitzea, naturaren dinamiken eraginez edo itsasoari lurra irabaziz”. Aipatutako artikuluan ematen den azken aldaketa barneratzen zaion 4.en atalean dago, zeinaren arabera udalerririk aldatzeko beti borondatezkotasun printzipioa errespetatu behar da. Xedapen orokorretan egindako beste aldaketa 29. artikuluan dagoen edukia gehitzea da, izan ere, artikulua honetan segregazio edo agregazio aldaketak gauzatzeko arrazoiak zerrendatzen dira, zeintzuk aurreko araubidean kasu bakoitzaren atalean zehazten diren. Arau honetan, berriz, bateratu eta guztientzat 3 arrazoi homogeneo zehazten dira.

⁷³ 5. artikulua zera dio “Kontzeptu hauek honela definitzen dira, foru arau honen ondorioetarako:

1.- Udalerririk banatzen dituen behin betiko lerroa da muga-lerro juridikozionala edo lurraldeko muga-lerroa.
2.- Behin behineko muga-lerroa, berriz, udalerririk banatzen dituen lerroa da; baina, kasu honetan, lerro hori ez dago behin betiko zehaztuta arloan aplikatzeko den araudiaren arabera.”

4. Irudia: Udalerrien aldaketan kasuak emateko arrazoiak



Egilea: Norberak egina

Bigarren kapituluan, aldaketa kasuak banan-banan zehazten dira, aurreko Foru Arauan bezala, baina, zenbait berrikuntza ditu kapitulu honek ere. Lehen Atalaren 30. artikuluan, aurreko arauan ez bezala, udalerririk mugakide bati edo batzuei eransteko udalerririk baten edo batzuen lurralde zati bat banatzearen kontzeptua zehazten da⁷⁴. Bigarren ataleko 32. artikuluan udalerririk bat eratzeko zenbait udalerririk mugakideen bat egitea zer den xedatzen da, zeinaren arabera Bizkaiko Lurralde Historikoan lehenetik dauden bi udalerririk mugakide edo gehiago batzearen ondorioz udalerririk berri bat sortzea den, lehenengo udalerririk ezabatzen delarik. Udalerririk berri bat eratu gabe udalerririk bat edo batzuk udalerririk mugakide bati edo batzuei eranstearen kasuan, 3. ataleko 34. artikuluan barneratzen da definizioa: udalerririk erantzen dira udalerririk mugakide bat edo batzuk osorik beste udalerririk bati gehitzen zaizkionean.

Hurrengo kapituluan, udalerririk aldatzeko prozedura zehazten da, baina, hitzaurrean aipatu bezala, prozedura hau askoz zehaztuago ageri da Foru Arau honetan. Prozeduraren hasierari dagokionez, ekimena hasteko eskudun bakarra zehazten da, 36. artikuluan udalerririk aldatzeko prozedura osoko bilkuraren erabaki bidez hasiko dela arautzen baitu, erabaki hori udaleko zinegotzirik bi hereneko hartu beharko dutelarik. Artikulu honetan

⁷⁴ 30. artikulua: "Honako hau da udalerririk bat banatzea: lurralde zati bat udalerririk batetik bereiztea lehenetik dagoen beste udalerririk bati eransteko (udalerririk hori mugakidea izango da, eta Bizkaiko Lurralde Historikoa); kasu honetan, ez da udalerririk sortuko ez ezabatuko."

figura berri bat barneratzen da, Batzorde Misto⁷⁵. Jakinarazpenari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiko sail eskudunari jakinarazteko 10 egun gaiko epea finkatzen da, beraz, hemen ere aldaketa bat ematen da. Behin Aldundiak erabakia jasota, honek hilabeteko epea izango du udal interesdunei jakinarazteko eta ondoren udalek bi hilabeteko epea izango dute proposatutako aldaketari buruzko beraien erabakia emateko (38. art.).

Epe hauek igarota udal interesdunen batek ez badu gaiari buruzko erabakirik eman, 39. artikuluari jarraiki aldaketarekin ados ez dagoela ulertuko da eta ondorioz Foru Aldundiak Batzar Nagusiei espedientea artxibatzeko proposamena igorriko die, hau aztertzeko helburuarekin. Batzar Mistoaren figura berria den heinean, honen izendatzearen, eginkizunen, akten eta egitekoen epearen inguruko artikulua berriak barneratzen dira. Honen inguruan eta prozedurari dagokionez garrantzitsua da aipatzea Batzorde Mistoak memoria eta gainerako agiriak egiteko, honen izendapena jakinarazten denetik hasita 4 hilabeteko epea duela (43. art.).

Behin Batzorde Mistoak lana ezarritako epean eginda, 10 eguneko epean Foru Aldundiko sail eskudunari eta udalei bidaliko die 10 eguneko epe barruan, eta behin hau eginda informazio publikorako epea zabalduko da, baina, arau honetan epe hau zabaldu egiten da, 30 egunetik hilabeteko epera pasatzen baita(44. art.). Behin epea amaituta, Aldundiko sail eskudunari jardun guztien berri emango diote, eta honek aldaketaren inguruko proposamen aztertuko du eta arauan ezarritakoarekin badator, espedientearekin aurrera jarraitzeko komunikatuko dio Batzorde Mistoari.

Foru arau honetako prozeduran, Lege Batzorde Aholkulariaren irizpena beharrezkoa da, 48. artikuluari jarraiki espedientea osatu ondoren, Lege Batzorde Aholkulariak, foru sail eskudunak bidalitako erabaki proposamena eta gainerako jardueretan oinarrituta, irizpena eman beharko baitu. Behin irizpena jasota, hilabeteko epean Aldundiko sail eskudunak Bizkaiko Foru Aldundiari jarduerak bidaliko dizkio, honek erabakiaren proposamena onar dezan eta, onartzeko kasuan, Batzar Nagusiei igorriko die, honek azken erabakia har dezan (49. art.). Erabakiaren gutxieneko edukia, argitaratzea eta betearaztea aurreko araudian xedatutakoaren berdina da, beraz, ez da berriz ere aipatuko.

IV. kapituluaren udalerririk aldatzearen ondorioz sortzen diren toki-korporazioetako kideen araubide iragankorra xedatzen da, eta berrikuntza garrantzitsua 54. artikulua dakar, udalerririk banatzearen kasuan, udalerririk aldatzearen ondorioz ukitutako udalerririk biztanle kopurua aldatzen den kasuetan, udal bakoitzari dagokion zinegotzi kopurua

⁷⁵ 36. artikulua: “(...) Horrez gainera, udalerririk interesdunen zerrenda eta eraturitako Batzorde Mistoko ordezkarien izendapena jasoko ditu; ordezkari horiek alkatea, 2 zinegotzi eta udal idazkaria izango dira.”

ezingo dela aldatu xedatzen baitu. Gainera, segregazio bidez udalerrri berri bat sortzearen supostua ezabatu den heinean, kapitulu honetan ere kasu horren inguruko xedapena ezabatu egin da.

Azken kapitulua Foru Arau honekin sartzen da indarrean lehen aldiz, osatzen duten bi artikulua berriak baitira. Horrela, 56. artikulua, izapidetzen ari diren espedienteak beste batzuei eransteko udalerrriak banatzearen kasuan zein eraentzarekin arautuko diren zehazten du, eta 57. artikulua aldiz, udalerrien bat egiteen edo eransteen kasuan zein espediente horien eraentza zein izango den arautzen du.

Azkenik, aipatu beharra dago arau honetako gainerako tituluek aurreko Foru Arauak zehazten dituen eremuak arautzen dituztela, beraz, honen inguruan ez da beharrezkoa azterketa bat egitea.

4.3.2.3. 6/2015 Foru Araua, martxoaren 25ekoa, Bizkaiko Lurralde mugapenei buruzko 2012ko abenduaren 5eko 2012/9 Foru Araua aldatzen duena.

Foru Arau honen hitzaurrean zehazten den bezala, gizarteak lurralde eremuari eta honen kudeaketari dagokionez eskaera handiak aholkatu ditu, batez ere, aurreko arauan segregazioaren ondorioz udalerrri independente bat sortzeko kasua ezabatu zelako.

Horregatik, arau honen bidez 27. artikulua aldatu egiten da, supostuen artean beste bat gehituz, e) atala, horrela, “udalerrri bateko lurralde zati bat banatzea udalerrri independente bat eratzeko” supostuak udalerrriak aldatzea eragin dezake. Ondorioz, artikuluko bereko 2. atala ezabatu egiten da, xedapen berriarekin bateraezina baita.

Supostu berri bat eratzen den heinean, IV. Tituluko II. Kapituluari atal berri bat gehitzen zaio, “udalerrri bateko lurralde zati bat banatzea udalerrri independente bat eratzeko” izenarekin. 35 bis. artikulua kasu honen kontzeptua barneratzen du: “Hau da kontzeptua: udalerrri bateko lurralde zati bat banantzea udalerrri independente bat eratzeko. Kasu honetan, bere egunean independente izan ziren udalerrien desanexioak ere jasoko dira.”. Horrez gain, 35. ter artikuluan aldaketak dakartzan ondorioak zehazten dira, azken hauek aurreko arauan zehaztutakoak direlarik, nahiz eta Foru Arau honetan zehaztasun handiagoarekin arautzen diren.

Prozedurari dagokionez, aurreko aldaketen ondorioz, honi dagokion ataleko artikuluetan ere aldaketak egitea beharrezkoa ikusten du legegileak. Horrela, prozeduraren hasiera xedatzen dituen 36. artikuluari parrafo berri bat gehitzen zaio, zeinaren arabera, udalerrri baten segregazioaren kasuetan, izan beste udalerrri bati eransteko edo udalerrri independente bat sortzeko, Batzorde Mistoak banandu nahi den auzoko 3 ordezkari

izango ditu, azken udal hauteskundeetan emaitzen arabera izendatutakoak izango direlarik. Beste aldaketa bat udal interesdunek Memoria eta gainerako agiriak onartzea xedatzen duen 46. artikuluan ematen da. kasu honetan, memoria eta agiriak onartzeko *quorum*-a da aldatzen dena, zinegotzien hiru herenen erabaki bidez baino, legezko zinegotzien gehiengo osoz onartu beharko baitira. Gainera, artikulua honen inguruan, 46.bis. artikulua berri bat gehitzen da, zeinaren arabera, ukitutako udalak edo udalek, 46.2. artikulua aipatzen duen bilkura berean, herritarrei kontsulta bat egiteko deia erabaki dezakete, izapidetutako aldaketaren aldekoak edo kontrakoak diren adieraz dezaten⁷⁶. Hurrengo aldaketa erabakiaren gutxieneko edukian ematen da, izan ere, Foru Arau honen ondorioz, aurreko arauak xedatutakoaz gain, udalerrien bat egite edo segregazio kasuan, udalerriri sortu berriaren izena eta udalburua hartzen duen hirigunea zehaztu beharko da (51.f. art.). Horrez gain, 55. artikulua ere aldatzen da, zeinari udalerriri independente bat eratzeko udalerriri bateko lurralde zati bat banatzean nola jokatu behar den gehitzen zaion. Izapidetzen ari diren espedienteen araubide iragankorraren kapituluan bi aldaketa ematen dira, 56 artikuluari izena aldatzen zaio (udalerririak banatzea beste bati edo batzuei eransteko izena ezabatu eta banatzea deitzera pasatzen da), eta 57 bis. artikulua gehitzen zaio, zeinak kasu berri honetan izapidetzen ari diren espedienteen eraentza zehazten duen. Gainerako aldaketak, Auzo-batzarrei dagokien artikuluetan ematen dira, hain zuzen ere, 63. eta 65. artikuluetan, baina, gaiarekin zerikusirik ez duten heinean, aipamena baino ez zaie egin.

5. USANSOLOREN DESANEXIO KASUA

Behin segregazioaren inguruko testuingurua azalduta, eta indarrean dauden legediaren zehaztasunak emanda, orain 20 urte udalerriri independente bihurtzeko irekita dagoen Usansoloren segregazio prozesua aztertuko da. Izan ere, Bizkaia mailan desanexio edo segregazio kasu asko eman izan dira, baina, Usansoloren kasuan, segregazio prozesu honek hainbat oztopo eta berezitasun izan ditu beste segregazio prozesuekin alderatuta.

5.1. 90. HAMARKADAN EMANDAKO PROZESUAREN HASIERA

Usansolok 20 urte baino gehiago daramatza segregazio prozesu bat aurrera eramateko lan egiten, 90. hamarkadan hasi baitziren honen inguruko ekimenarekin. Hain zuzen ere,

⁷⁶ Gainera, artikulua berriak dio Foru Arau honen 27. artikuluan jasotzen diren udalerrien aldaketa prozeduretan, herritarrei kontsulta egitea erabakitzen bada, a) kasuan, hau da, udalerriri mugakide bati edo batzuei eransteko banantzen den lurraldearen kasuan, banandu nahi den lurraldeko herritarrek parte hartuko dute eta, e) kasuan, hau da, udalerriri independentea eratzeko banantzen denean, banandu nahi den lurraldeko herritarrek parte hartuko dute.

1988. urteko udal korporazioaren udalbatzako aktan oinarrituta, Usansolo Bereizteko Batzordeak udalari garai hartako 1987/2 Foru Arauak xedatutako Aldundiaren azterketa sozioekonomikoa egiteko onarpena eskatu zion, honen segregazio espedientearen hasiera eskatuz⁷⁷.

Bizkaiako Foru Aldundiak Hirilur enpresaren bitartez “Usansolo: udal bereizgorako ikerketa” txostena aurkeztu zuen, zeinak Usansolo auzoa edo herria den, honen historia, mugak, txosten ekonomikoa eta analisi juridikoa aztertu ondoren, ondorio ezberdinak eratoritzen dituen:

- Garai hartako 2/1987 Foru Arauaren 16. artikuluko baldintzak (erdigune bereizia, beharrezko baliabide propioak, zerbitzuen kalitatea ez gutxitzea eta muga probintzialen aldaketa) txostenean justifikatuak geratzen zirela.
- Aldaketaren bideragarritasuna 1. Xedapen gehigarrian ziurtatu zenez, legeak aurreikusitako subjektuen prozesuaren hasiera aurrera eman zezaketela.

Horrela, 1988ko azaroaren 14an udalbatzaren akordio bidez segregazio espedientea hasiera onartzen da eta hilabete horretako 21ean, idazki formal bat igortzen da, Aldundiari espedientearen hasiera onartzea eskatzen.

Ondoren, 1989ko ekainaren 13an, hauteskunderen emaitzak kontuan izanik, Usansoloren segregaziorako lehen Batzorde Kudeatzailea izendatzen da Udal Harremanen ahalduaren Foru Aginduaren bidez. Data horretatik aurrera, Udalaren eta segregazioaren bultzatzaileen arteko negoziaketak hasten dira.

1991. urtean, Batzorde Kudeatzailea urte hartako hauteskunderen emaitzen arabera berriztu zen. Honen ondoren, lehenbizi Udalak IKEIri azterketa sozioekonomikoa eskatu zuen eta ondoren Batzorde Kudeatzailearen eskariz, Foru Aldundiak aholkularitza juridikoaren prestaziorako abokatutza bufete bat kontratatzen du.

⁷⁷ 1988ko otsailaren 15eko ohiko osoko bilkuraren aktak dio:”Dada lectura al escrito presentado por la Comisión Pro-Desanexión de- Usánsolo solicitando del Ayuntamiento Morgue su aprobación a la realización de un estudio socioeconómico por parte de la Diputación, como trámite-previo para la constitución de -un nuevo municipio por segregación de otro. [...] Considerando la necesidad de un estudio socio-económico a fin de comprobar la viabilidad de la alteración propuesta con carácter previo a la adopción del acuerdo municipal que proceda, y de conformidad con lo previsto en la Disposición Adicional la de la citada Norma Foral, El Ayuntamiento Pleno acuerda por unanimidad solicitar de la Diputación Foral de Bizkaia la realización de un estudio previo de carácter socio-económico al objeto de conocer, y posibilitar si procede, la alteración de este término municipal consistente en la segregación del núcleo de población del denominado barrio de Usansolo para su constitución en Municipio independiente.”


Hala ere, txosten hauek ez dute prozesua sustatzen eta 1999. urtean, hauteskondeak eta gero Batzorde Kudeatzailea berrizteko orduan, ez ziren izendapenak aurrera eramane eta urte horretatik aurrera espedienteak geldituta geratu zen.

5.2. PROZESUAREN BERRIKUNTZA

2011. urtean Usansolo Herria (UH) elkarte politikoa eratu zen, helburu bakarra Usansoloren desanexioa lortu eta Bizkaiko 113.en herria bihurtzea delarik. Horretarako, udal hauteskondeetara aurkeztu eta bi zinegotzi lortu zituzten Galdakaoko Udaletxean. Horrez gain, 2012. urtean, Bizkaiko Foru Aldundiari Batzorde Kudeatzaile bat eratzea eskatu zitzaion, baina, segregazio aukera ezabatzen zuen 2012ko Foru Araua indarrean sartzeko zorian zegoenez, Galdakaoko Udalean UHk mozio bat aurkeztu zuen udalak Foru Arau hori ez onartzea eskatuz. Gainera, arau beraren aurka Justizia Auzitegi Nagusiaren (JAN) aurrean ere helegite bat tarteratu zuten 2012ko abenduan, baina Auzitegiak ez zien helegitea onartu.

Usansoloren desanexio prozesua gutxi batzuen helburua ez zela ikusarazteko helburuarekin, 2014ko azaroaren 23an, kontsulta bat egin zen, 3.000 hautesletik⁷⁸ segregazioaren aldeko 1964 bozka atera zirelarik.

2. Grafikoa: 2014ko azaroaren 23ko kontsultaren emaitzak



Egilea: Norberak egina.

⁷⁸ Hautesleak 16 urtetik gorakoak izan ziren eta kopurua gutxi-gorabeherakoa da Galdakaoko Udalak ez ziolako plataformari errolda ahalbidetu.

2015eko apirilaren 20an, UH-Usansolo Herria Udal taldeko zinegotziak mozio bat aurkeztu zuen. Mozio horretako zioen azalpenean adierazten da 2015eko martxoaren 25ean, Galdakaoko Udalaren eskariz, Bizkaiko Batzar Orokorrek Foru Araua aldatu zutela (6/2015 FA bitartez), Usansoloren segregazioa posible egiteko helburuarekin. Legearen arabera, prozesu horretan, Galdakaoko Udaletxeari dagokio segregazio prozesua martxan jarri eta Batzorde Mistoia eratzeko, hau beharrezkoak diren dokumentuak egin eta onartzeaz arduratzen delarik.

Mozioan bertan, udalbatzari Usansoloren segregazio prozesurako oinarrien proposamena egiten zaio. Lehen oinarria hasiera emateko akordio plenarioa da, zeina legezko zinegotzien kopuruaren gehiengo absolutuarekin onartuko den. Hurrengo oinarrian, akordio plenarioaren aurretik Batzorde Informatiboaren irizpena proposatzen da, zeina Batzorde Paritarioan erabakiko den. Azken oinarrian, udalbatzan segregazio proiektuaren onarpen definitiboa egin baino lehen herritarren kontsulta egitea proposatzen da.

5.3. PROZESUAREN BILAKAERA

2016ko uztailaren 27an, Galdakaoko Udal Gobernuaren proposamenaren oinarrian ibilbide orri bateratua egiten da, zeinak UH eta Udalak egindako negoziazio bilerak barne biltzen dituen. Azken bi hauek dokumentu honetan prozeduraren “aurreko fasea” bukatu dela onartzen dute.

Dokumentuaren objektua, Usansolo izan behar dena zehaztu ondoren, herri berria eratzeko legezko baldintzen konkurrentzia aztertuz eta Usansoloko biztanleriari kontsulta bidez herri independente bat eratu nahi duten edo ez galdetuz, prozesua definitzea da.

Ibilbide orriaren helburua segregazio prozesua definitzea da, zeina, herri kontsulta batekin bukatu beharko den. Prozesuak 3 fase ditu, lehena Batzorde Paritarioak ikuskatuko du, 2015eko apirilaren 27ko mozioaren arabera, eta hau espedientea hasi arte luzatuko da, Foru Arauaren arabera. Bigarrena, Batzorde Mistoaren gidaritzapean egingo da, 9/2012 Foru Arauaren arabera eta hirugarrenenean, udalbatzaren onarpenaren ostean, herri kontsulta martxan jartzen da.

Prozesuaren kudeaketarako, udalbatzak eta Batzar Nagusiek onartutako dokumentuetan eta Batzorde Informatiboaren bidez Udalak egikaritzen duen funtzionamenduan oinarrituz, egitura antolatzaile bat zehazten da. Horrela, gainbegiratze, koordinazio eta gidaritzaren organoak izango dira bai Batzorde Paritarioa, bai Batzorde Mistoia. Azken honi dagokionez, oinarria 9/2012 FAn dago, eta alkatea, 2 zinegotzik, Usansoloko 3

ordezkarik eta Foru Aldundiak izendatutako bi funtzionariok eratuko dute. Hauez gain, Batzorde Mistoaren akordio eta aginbideek diotenaren arabera jardungo duten udal organo informatzaileak izango dira Jasangarritasun eta Parte hartzearen inguruko Batzorde Informatzailea eta Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzailea. Azkenik, Kontratazio mahaia udal kontratazio prozesuen organoa izango da.

Ibilbide orrian, desanexio prozesua, gaur egun dagoen egoeraraino, hurrengo eskeman ikus daitekeen bezala zehazten da:

- Prozesuaren aurreko fasea:
 - ☞ Gainerako alderdiekin prozesuaren kontraste politikoa egitea.
 - ☞ Prozesuarekin kontraste juridikoa
- Lehen fasea: Segregazio espedientearen hasieraren lanketa
 - ☞ Batzorde Paritarioaren kideen izendapena.
 - ☞ Batzorde Paritarioaren eraketa.
 - ☞ Objektu, muga eta azaleraren zehaztapena: kontsulta prozesua (Batzorde Paritarioaren lana)
 - ☞ Muga geografikoak, kausa eta legezko justifikazioen zehaztapena (Batzorde Paritarioaren lana)
 - ☞ Batzorde Mistoaren funtzionamenduaren oinarriak lantzea (Batzorde Paritarioaren lana)
 - ☞ Espedientearen hasieraren akordioa: honen barruan Ogasun eta Ondarearen Batzorde Informatzaileak irizpena eman eta udalbatzari helarazi behar dio azken honek onartu dezan. Honen ondoren, akordioa Bizkaiko Foru Aldundiari bidaliko zaio.

Aipatutako ibilbide orri hau egun berean onartu zen, EAJ-PNV, PSE-EE, GALDAKAO BIZIRIK-IRABAZI eta EH Bilduren aldeko bozkekin, PP alderdi politikoaren kontrako bozkarekin eta GALDAKAO ORAIN alderdiaren abstentzioarekin.

Hala ere, gaur egun lehen fasean dago oraindik segregazio prozesua, izan ere, Batzorde Paritarioak oraindik ez du Usansoloren muga geografikoak zeintzuk izango diren zehaztu. Honen oinarrian, prozesuan zehar eman diren gorabeherak daude, hainbat aspektutan Udala eta Usansolo Herria ez direlako bat etorri, hala nola, Batzorde Paritarioaren eraketan eta Usansolo izango denaren muga zehazteko moduan. Horren ondorioz, jarraian

banaka aztertuko dira azken urteetan eman diren arazo hauek eta kasu bakoitza nola konpondu edo amaitu den.

5.3.1. Batzorde Paritarioaren eraketa

Ibilbide orriaren arabera, Batzorde Paritarioaren funtzioa segregazio espedientearen hasiera prestatzeko osoko akordioa lantzea da, segregazio objektua, mugak eta Batzorde Mistoaren egitura proposatuz. Batzorde honen osaera aldiz, hurrengoa izan beharko dela dio dokumentu berdinak: presidente moduan alkatea, Udaleko 2 zinegotzi eta Usansoloko 3 ordezkari, baita udal idazkaria, baina azken honek ez du bozkarik izango.

Oinarria edukirik, Batzorde Paritarioa zelan eratu den azaldu aurretik, beharrezkoa da Usansoloren segregazio espedientearen agertzen diren honen inguruko dokumentu guztiak kronologikoki barne biltzen dituen hurrengo taulari erreparatzea:

2. Taula: Batzorde Paritarioaren inguruko segregazio espedientearen dauden dokumentuak


DOKUMENTUA	DATA
Ibilbide orri bateratua	2016ko uztailaren 27a.
Batzorde Paritarioa eratzeko kideen izendapena	2016ko irailaren 28a.
Batzorde Paritarioaren kideen inguruko Bozeramaileen batzarra	2016ko irailaren 29a.
Batzorde Paritarioaren izendapen dekretua (1462 zk.)	2016ko irailaren 30a.
Batzorde Paritarioaren izendapenen dekretuaren aurkako helegitea	2016ko azaroaren 15a.
Idazkaritza Orokorren Batzorde Paritarioaren inguruko txostena	2016ko azaroaren 24a.
Berraztertze helegitea ezesteko dekretua (1843 zk.)	2016ko azaroaren 30a.
Batzorde Paritarioaren aurkako helegitea Bilboko Administrazioarekiko auzien 1. Epaitegian	2017ko otsailaren 21a.
Administrazioarekiko auzien 1. Epaitegiaren 205/2017 Sententzia	2017ko irailaren 11a.

Egilea: Norberak egina.

Prozesuaren lehen fasean segregazio espedientearen hasiera lantzea da. Horretarako, ibilbide orriak finkatzen duen lehen pausua Batzorde Paritarioaren kideak izendatzea da. Bertan, arrazoi operatiboak direla eta, Batzorde Paritarioaren kideak Batzorde Mistoan

daudenak izatea proposatzen da, honek aurrez aipaturiko osaera duelarik⁷⁹. Ondorioz, 2016ko irailaren 28an Udalak izendapena proposatzen du eta hurrengo egunean Bozera maileen Batzarrean izendapenaren inguruan eztabaitzen da. Azkenean, nahiz eta beste proposamen bat aurkeztu batzarrean, bozkatzerako unean hau ez da aurrera ateratzen eta nahiz eta Udalaren proposamenak aldeko zein kontrako bozka berdina izan, azkenik alkatearen kalitatezko bozkarekin onartu egiten da.

5. Irudia: Batzorde Paritarioaren osaera



Egilea: Norberak egina.

Hala ere, Bozera maileen batzar horretan, bilera-aktan adierazten den bezala, UH elkartearen bozera maileak adierazten du ez dela zilegia Batzordeko 3 kide EAJ-PNV alderdikoak izatea, eta 8 zinegotzik sinatutako idazki batean Idazkaritza Orokorrari proposamenaren zilegitasunaren inguruko txostena eskatzen dio, behar den proportzionaltasuna gordetzen ez dela ulertzen baitute.

Haatik, irailaren 30ean, 1462 Alkate Dekretuaren bidez Batzorde Paritarioko kideen izendatzea xedatzen da, eta, honen aurrean, UH, EH Bildu eta GALDAKAO ORAIN

⁷⁹Bizkaiko Lurralde mugapenen 2012/9 Foru Arauak, abenduaren 5koak, 6/2015 Foru Arauaren aldaketaren ondorioz, 36. artikuluan Batzorde Mistoaren eraketa zehazten du, eta “Udalerrri zati bat dagoeneko egon dagoen udalerrri baten sartzeko banantzen bada edo udalerrri independente bat eratzekeo desanexionatzen bada, banandu nahi den auzoko hiru ordezkari izango ditu Batzorde Mistoak, azken udal hauteskundearen emaitzen arabera izendaturik.” Usansolo hauteskunde emaitzen eta proportzioen arabera, UH alderdiari 2 ordezkari eta EAJ-PNV alderdiari ordezkari bat dagokio.

taldeetako zinegotziek, berraztertze helegitea tarteratzen dute, alkateak batzorde paritarioaren izendapena egiteko eskumena ez duela eta honen izendapenak proportzionalitate printzipioa urratu duela defendatuz⁸⁰.

2016ko azaroaren 24an, Idazkaritza Orokorrak eskatutako txosten juridikoa igorri zen, zeinak helegitean defendatutako bi gaien inguruan arrazoiak ematen dituen. Zehazki, txostenak alde batetik dio udalbatzak sortutako organoa izateak ez duela berekin honen kideen izendapenaren eskumena ekartzen, eta bestetik, udal organo guztiek ez dutela zertan ordezkartzan proportzionaltasun printzipioa mantendu behar defendatzen du. Izan ere, udalbatzaz gain, soilik batzorde informatzaileak eta Kontu Batzordeak bermatu behar dute udal talde politiko guztien presentzia. Ondorioz eta guzti honetan oinarrituz, berraztertze helegitea ezesteko 1843 Alkate Dekretua tarteratzen da. Horrela, ibilbide orriaren bigarren pausua Batzorde Paritarioaren eraketa den heinean, 2016ko azaroaren 30eko aktan berau formalizatu egiten da.

Honen aurrean, helegitea tarteratu zuten zinegotziek, Bilboko Administrazioarekiko auzien 1. zenbakiko epaitegira jotzen dute, 1462 eta 1843 Alkate Dekretuak errekurrituz. Hain zuzen ere, demandatzaileek beraien uzi deuseztatzailea 3 arrazoietan oinarritzen dute, alde batetik Dekretuek kargu publikoen parte hartzearen konstituzio eskubidea urratzen dutela, bestetik, dekretuak zuzenbide osoz deuseztagarriak direla defendatzen da, alkatearen izendatzeko eskumen ezagatik eta azkenik, batzorde paritarioa eratu eta izendatzeko unean proportzionaltasun politikoaren urraketa dago.

Bilboko Administrazioarekiko auzien 1. zenbakiko Epaitegiak, 205/2017 ebazpenaren bidez, helegitea deusezten du. Izan ere, alde batetik, parte hartzearen konstituzio eskubidea urratua izan ez dela adierazten du, Batzorde Paritarioaren eginkizun bakarra gerora udal batzorde informatzaileak aztertu, eztabaidatu eta erabakiko duenaren inguruko proposamen soila egitea delako, eta beraz, parte hartzearen eskubidea bigarren batzorde horretan bete beharko dela ondorioztatzen du, eta 1462 dekretua Bozera maileen Batzarrean eman denez eta honetan alderdi politiko guztiak ordezkatuak daudenez, eskubidea urratu ez dela ondorioztatzen du.

⁸⁰ Helegitearen oinarrietan zehazten da, legedian oinarrituz, Batzorde Paritarioak “*ad hoc*” izaera duela eta kasu hauetan izendapena udalbatzari dagokiola. Gainera, jurisprudenzia erabiltzen da arrazoiak justifikatzerako orduan, hauen artean proportzionaltasuna errespetatuz parte hartzea eskubidearena, izan ere, arrazoi hau justifikatzeko Auzitegi Gorenaren 10035/1998 kasazio helegitean zehazten dena erabiltzen da, hau da, Batzorde Informatzaileen eraketan proportzionaltasun printzipioa aplikatzen ez bada erabaki prozesuaren baitan parte hartzea ezabatuko zela adierazten da.

Bestetik, alkatearen konpetentzia ezari dagokionez ere, epaileak ez du konpetentzia eza ikusten bi arrazoiengatik, batetik Batzorde Paritarioaren eraketa Bozeramaileen Batzarrean onartu zelako eta bestetik udalbatzari dagokiona udalerrien aldaketa hasteko prozesuaren akordioa delako, zeina ez den eman.

Azkenik, epaileak batzorde paritarioa eratu eta izendatzeko unean proportzionaltasun politikoaren urraketa ez dagoela defendatzen du “la Comisión Paritaria cuyos miembros vino a designar el Decreto 1462 [...] no tiene la consideración de “órgano complementario”, por lo que no le sería de aplicación el precepto mencionado” (5. ZO)⁸¹. Horrela, batzorde informatzailea organo osagarri bezala definitzen du eta honi proportzionaltasuna aplikatu beharko litzatekela dio.

5.3.2. Usansoloren mugak ezartzea

Hurrengo pausua objektuak, mugak eta azalera zehaztea da. Pausu honen barruan lan ezberdinak aurreikusten ditu ibilbide orriak, lehen lana Usansoloren mugak ezartzea delarik. Horretarako, Batzorde Paritarioak Usansolo osatuko duten auzoen mugak zeintzuk diren zehaztu beharko ditu, zeinak kartografia ofizialean jarriak eta erreferentzia-sistema ofizialean dauden mugarrien koordenatu-zerrendan zehaztuak egon behar diren. Guzti hau aurrera eramateko segregazio espedientean ondorengo dokumentuak jasotzen dira:

⁸¹ BAAE edo Bilboko Administrazioarekiko Auzien 205/2017 Epaia, irailaren 11koa, 5. Zuzenbide Oinarria.

3. Taula: Usansoloren mugen inguruko segregazio espedientean dauden dokumentuak

DOKUMENTUA	DATA
Ibilbide orri bateratua	2016ko uztailaren 27a.
Usansoloko mugak definitzeko kronograma	2016ko abenduaren 22a.
UHK proposatutako dokumentua	2017ko urtarrilaren 10a.
Usansoloko desanexio prozesuaren galdera Bizkaiko Foru Aldundiari	2017ko urtarrilaren 31a.
Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzuna	2017ko otsailaren 10a.
Usansoloko Batzorde Paritarioaren akta	207ko otsailaren 14a.
Bizkaiko Foru Aldundiaren Usansoloren mugen inguruko erantzuna	2017ko apirilaren 12a. 2017ko uztailaren 11a. 2017ko uztailaren 13a.
Idazkaritza Orokorraren kontsultaren inguruko txostena	2017ko abuztuaren 1a.
UHren kanpoko aholkulari juridikoaren txostena	2018ko urtarrilaren 23a.
Ministro Kontseiluaren erabakia	2018ko uztailaren 26a.

Egilea: Norberak egina.

2016ko abenduaren 22ko bilera-aktari jarraiki, alkateak Usansoloren mugak zehazteko kronogramaren proposamen bat egiten du. Horrekin batera, bere ustez Usansoloren mugak ezagunak ez direnez, Usansolo herria osatu dezaketen auzoei honen parte izatearen nahia kontsultatzea proposatzen du, proposamen hau maila teknikoan Foru Aldundiarekin egiaztatu delarik. Honen aurrean, UH elkarteko kideak adierazten du ez daudela ados mugaketa horrela egitearekin, eta Usansoloren mugak adituen txosten baten bidez egitea proposatzen du, eta alkateak hala eskatuta, hurrengo bilerara proposamena idatziz eramango duela adierazten du.

Horrela, 2017ko urtarrilaren 10ean, bi proposamen aurkezten dira Batzorde Paritarioaren bileran. Alde batetik, udalaren edo dagokion Foru Aldundiaren Sailaren zerbitzu teknikoak eskatzea beharrezko asistentzia teknikoa kontratatzeko baldintzen inguruko txostena egiteko eta bestetik, Batzorde Paritarioaren beharrezko asistentziarako Foru Aldundiaren Udal Erlazioen Sailari Batzordera behar diren teknikoak eranstea eskatzea.

Bigarren kasu hau posible litzatekeen ziurtatzeko, gutun bitartez urtarrilaren bukaeran, udalak Bizkaiko Foru Aldundiko Zerbitzuen, Udal harremanen eta Larrialdien zuzendari nagusiari galdetzen dio. Foru Aldundiak, otsailaren 10eko erantzunean adierazten du Aldundiko funtzionarioek espedienteari hasiera emateko Batzorde Mistoan baino ez dutela parte hartuko (9/2012 FA, 36. eta 40. art.). Ondorioz, batzorde paritarioan funtzionarioak ezin direla izendatu dio, Galdakaoko Udalak lege-babesik aurkitu ez duelako sortu den batzordea baita, prozedura iragarri baino lehenagoko lanak egiteko helburuarekin.

Horrez gain, udalak Foru Aldundiari alkatearen proposamena helarazi eta posiblea den edo ez galdetzen dio alkate, alkateorde eta udaleko idazkariarekin izandako bilera batean. Izan ere, bertan, Zerbitzuen, Udal harremanen eta Larrialdien Zuzendaritzako Asistentzia Juridikoari, Galdakaoko hainbat zonei Usansoloren desanexioaren parte izan nahi duten galdetzeko kontsulta baino lehen Gobernuaren baimena beharrezkoa den edo ez jakiteko txosten bat eskatzen zaio. Honen inguruan, Asistentzia Juridikoaren Sailaren txostenak dio udaletan herritarren parte hartzearen bi mekanismo direla, zeinak TEOLren 70. bis eta 71. artikuluetan xedatzen diren⁸². Bi ekimen hauek oinarrian ezberdintzen dira, lehena udal ekimena delarik eta bigarrena herri ekimena. Txostenak dio aztertzen den kasua Galdakaoko hainbat auzotako herritarrei Usansoloren segregazioaren parte izan nahi duten edo ez galdetzea denez, bigarren kasuan kokatzen dela eta ondorioz, 71. artikuluari jarraiki, Gobernuaren baimena beharrezkoa izango dela.

⁸² TEOLko 70. bis.2. artikulua arabera "Udal-hauteskundeetan botoa emateko eskubidea duten auzotarrek herri-ekimena erabil dezakete, udalerrien eskumeneko gaiei buruzko erabaki proposamenak zein jarduera-proposamenak, nahiz erregelamendu-proiektuak aurkeztuz. Udalerriko auzotarren ehuneko hauek gutxienez izenpetu behar dituzte ekimen horiek: a) 5.000 bizilagun arteko udalerrietan, ehuneko 20k.; b) 5.001etik 20.000 bizilagun arteko udalerrietan, ehuneko 15ek.; c) 20.001 bizilagunetik gorako udalerrietan, ehuneko 10ek.

Ekimen horiek osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatu beharko dira, gaiaren arabera eskumenak dituen organoak erabaki ahal izango dituen arren. Nolanahi ere, udaleko idazkariaren alde aurreko txostena eskatuko da legez kotasanari buruz, eta berdin kontu-hartzailearen txostena ere ekimenak udalaren ekonomiako eskubideei eta betebeharrei eragiten badie. Lege honetako 121. artikuluan aipatutako udalerrien kasuan, osoko bilkurako idazkari nagusiak egingo du legez kotasanari buruzko txostena, eta ekimenak ekonomiako eskubideei eta betebeharrei eragiten dienean udaleko kontuhartzaile nagusiak egingo du txostena.

Idatz-zati horretan xedatutakoa ez doa gai honi buruzko autonomia-legediaren aurka.

Ekimen horiek tokian tokiko herri-galdeketerako proposamena har dezakete barruan, eta 71. artikuluan aurreikusitako prozeduraren eta eskakizunen arabera izapidetuko da kasu horretan"

TEOLren 71. artikulua arabera "Estatuko eta autonomia-erkidegoko legediaren arabera, estatutuan autonomia-erkidegoari horretarako eskumena aitortzen zaionean, osoko bilkuraren gehiengo osoak hala erabaki eta Estatuko Gobernuak baimena eman ondoren, auzotarren intereserako berebiziko garrantzia duten udalaren eskumeneko eta toki-izaerako arazoei buruzko herrigaldeketa egin ahal izango dute alkateek, tokiogasunari dagokion arazoetan izan ezik."

2018ko uztailaren 28an, Ministro Kontseiluaren herri kontsultaren akordioa argitaratzen da. Akordio honen arabera, uztailaren 20an Kontseiluak herri kontsulta ez baimentzea erabakitzen da, TEOLren 71. artikuluko baldintza formalak betetzen ez direlako, ezta elkarrekin bete behar diren baldintza materialetako bat ere. Baldintza formalen inguruan, akordioak dio, nahiz eta herri kontsulta egikaritzea 2018ko otsailaren 6ko udalbatzaren akordioan erabaki, ez dago bateragarritasunik onartutako akordioa akordio zuzentzen den subjektu eta bertan babesten den ezarpenaren artean, “el acto aprobado por el Pleno de la Corporación adolece de una contradicción interna que impide, al no dirigirse a todos los vecinos, calificar la voluntad del Ayuntamiento como voluntad de celebrar una consulta popular del art.71 LBRL”.

Baldintza materialei dagokienez, elkarren artean eman behar direla argudiatzen du Auzitegi Gorenak eta kasu honetan akordioak dio auzotarren interesetzako aparteko garrantzia duen gaiaren inguruko kontsulta izan behar delaren baldintza betetzen ez dela, nahiz eta aparteko garrantzia duen gaia izan, herritar guztiei zuzentzen ez den heinean herri kontsultaren alderdi zehatzailea ematen ez dela argudiatzen da.

Gobernuaren baimenari paraleloki, 2017ko otsailaren 14an Usansolo Batzorde Paritarioan Foru Aldundiaren erantzuna eztabaidatzen da. Bertan, Foru Aldundiari, Usansoloren inguruko datuak ahalbidetzeko helburuarekin, gutun bat idaztea zehazten da. 2017ko apirilaren 12an galderari erantzuna ematen zaio, zeinak Estatistikako Institutu Nazionalak (EIN) emandako informazioa eta EUSTATEk biztanleriari eta eraikinei buruz bidalitako informazioa dakarren. EINren arabera, 2016. urtean Usansolok biztanle batasun bezala jasota dago, zeina herritar nukleoa batez eta nukleo barreiatzaile batez osatua dagoen.

4. Taula: Usansoloren biztanleria 2016. urtean

UDALERRIA	BIZTANLE BATASUNA	BIZTANLERIA OSOA	GIZONAK	EMAKUMEAK
Galdakao	Usansolo	4419	2197	2222
Galdakao	Usansolo	4077	2032	2045
Galdakao	Barreiatua	342	165	177

Iturria: EINeko datuak

Egilea: Norberak egina.

Gainera, Aldundiak, 2017ko uztailearen 11an alkateari gutun bat bidaltzen dio adieraziz, BFAn esku artean duten agiri-sorta kontuan izanik ez dagoela ez Katastroan ez Kartografian Usansolo herri-gunearen gaineko mugaketarik. Ondorioz, BFaren hitzetan ez dago Usansoloko herri-gunearen mugaketa sinesgarririk.

Aldundiaren informazioaz gain, estatistika eta errolda arloko arduradunak Usansoloko mugei buruz txosten bat egikaritzen du uztailearen 13an aurkezten duena, zeinaren arabera, Usansolo 4 sekziotan banatutako barruti bat den, data horretan 4.471 biztanle dituena.

5.4. PROZESUAREN ETORKIZUN HURBILA

Nahiz eta informazio guzti hau lortu, Ministro Kontseiluaren erabakiaz geroztik, hau da, 2018ko uztailearen 28az geroztik, Batzorde Paritarioa ez da berriro bildu mugen inguruan beste irtenbide bat lortzeko. Horregatik, 2018ko otsailaren 1ean, Usansolo Herria elkarte politikoak Arartekoarengana jo du, segregazio prozesuaren inguruko dokumentazioa erraztuz eta beraien aburuz blokeatuta dagoen prozesua desblokeatzeko eskatuz.

Izan ere, behin mugak ezarri eta gero, lehen fasearekin amaitzeko Batzorde Mistoaren funtzionamenduaren oinarriak landu eta gero, udalbatzak espedientearen hasiera akordioa erabakia hartu beharko luke eta akordio hori Bizkaiko Foru Aldundiari bidali beharko litzaioke.

Ondoren, ibilbide orrian zehaztuta dauden bigarren eta hirugarren faseak aurrera eraman beharko lirateke. Bigarren fasean, Usansolo herri independente bilakatzeko legezko baldintzen konkurrentzia dagoen edo ez ikusteko analisi eta azterketak egitea xedatzen da, eta behin hori eginda, hirugarren fasean legeak zehaztutako kontsulta egin eta gero Bizkaiko Batzar Nagusiak segregazioaren erabakia eman beharko luke.

6. ONDORIOAK

Egindako analisi teorikotik atera daitekeen lehen oinarrizko ondorioa, terminologiaren konfusioa da, denboran zehar fenomeno berdina adierazteko bi kontzeptu erabili izan direlako modu berean edo bereizi gabe: desanexioa eta segregazioa.

Hala ere, desanexioa aurretik herri independente zen baina hirigintza arrazoi edo arrazoi politiko-ekonomiengatik beste herri batera anexionatu zen herrien alderantzizko prozesua da, 6/2015 Foru Arauak zehazten duen moduan⁸³. Gainera, desanexioaren kontzeptua 8/1993 Foru Arauan ere agertzen da, baina aurreko arauarekin desanexionatutako herriei erreferentzia egiteko aipatzen da. Aldiz, segregazioa gaztelaniazko termino bat da, zeinak “separar o apartar algo o alguien de otra u otras cosas” esan nahi duen eta euskeraz, segregazioari erreferentzia egiteko udalerriaren banatzea erabiltzen den.

Modu batean edo bestean, segregazioa historian zehar herrietan eman den prozesu bat da eta horren adierazle da BURGUEÑO eta GUERRERO LLADÓSen azterketa, zeinaren arabera, Kadizko Konstituzioaz geroztik egon diren udal mapa konstituzionaletan herrien segregazioa beti presente egon izan den. Aditu hauen arabera, gaur egun, bosgarren udalerrien mapan kokatzen gara, zeinetan diktadura eta gero, 1978ko Konstituzioarekin hasi zen etapa demokratikoaz geroztik, segregazioen olatu berri bat eman izan den. 1977tik 114 herri berri osatu dira⁸⁴.

Osatutako herri berri hauek, hasiera batean Estatuko Gobernuaren erabakiz eta gerora dagokion Autonomia Erkidegoaren barnean eskumena izan duenaren erabakiz⁸⁵ eman dira, izan ere, Autonomia Estatutu gehienek udal mugartearen aldaketen inguruko gaia bere gain hartu dute, Konstituzioaren 148.1.2. artikuluari jarraiki⁸⁶. Eskumen banaketa honen ondorioz, Estatuari dagokio udalerrien inguruko oinarrizko izaera eta erregimena arautzea, eta Autonomia Erkidegoei dagokio honen inguruko garapena aurrera eramatea.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Estatistikako Institutu Nazionalaren zifrak kontuan izanez, 80. hamarkadaz geroztik, 24 herri berri sortu dira, gehienak 1983-1993.

⁸³6/2015eko Foru Arauaren 35. Bis. artikuluaaren arabera, udalherri bateko lurralde zati bat udalherri independente bat eratzeko banantzearen kontzeptua hurrengo da: ”Hau da kontzeptua: udalherri bateko lurralde zati bat banantzea udalherri independente bat eratzeko. Kasu honetan, bere egunean independente izan ziren udalherrien desanexioak ere jasoko dira.

⁸⁴ Vid. BURGUEÑO, J.; GUERRERO LLADOS, M. (2014). «El mapa municipal de España. Una caracterización geográfica» *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 64. zk., 15 or.

⁸⁵*ibid.*

⁸⁶ Vid. SOSA WAGNER, F. Y DE MIGUEL GARCÍA, P. (1987). *Creación, supresión ...* op. cit., 605 or.

urte tartean. Guzti hauek aurrez aipaturiko anexio bidez ondoko herrietara atxikituak izan ziren eta, diktaduraren ondoren, Batzorde Kudeatzaile bat sortuz, segregazio prozesuak bultzatu eta herri independente bihurtu ziren.⁸⁷

Kasu hauetako asko Bizkaian emandako desanexioak izan dira, baina, aipatzekoa da kasu hauetan desanexionatzeko erabakia organo ezberdinek eman izan dutela. Izan ere, 1982. urtean Eusko Jaurlaritzak Txorierriko bost udalerrri (Derio, Erandio, Loiu, Sondika eta Zamudio) Bilbotik desanexionatzeko azken dekretua eman zuen, izan ere, 1979. urtean, Euskal Herriko Autonomia Estatutuarekin, udal mugarteen inguruko gaia eskusiboki Lurralde Historikoen eskumen bihurtzen da eta ondorioz, eskumena Bizkaiko Foru Aldundiak bereganatzen duen heinean, segregazio prozesuaren erabakia Batzar Nagusien esku geratzen da. Azken hauek emandako desanexio prozesuetatik aipagarrienak eta azkenak Iurreta, Zierbena edota Ziortza-Bolibar dira, azken hau 2004. urtean sortu zen udalerrria izanik.

Ziortza-Bolibar auzoaren segregazio prozesuarekin batera, 1988. urtean, Usansoloren segregazio prozesua hasi zen. Hala ere, prozesuaren bilakaeran negoziaketek ez zuten irtenbiderik eman eta 1999. urtean espedientea geldituta geratu zen, harik eta 2011. urtean, Usansolo biztanleriaren zati batek segregazioaren inguruko prozesuari bultzada bat emateko asmoz Usansolo Herria elkarte politikoa eratu arte.

Haatik, segregazio prozesu honek, aurrez aipaturiko segregazioek ez bezala, Bizkaian udal mugarteen inguruko legedian egin izan diren aldaketak jasan ditu. Lehen aldaketa 9/2012 Foru Arauak ekarri zuen, zeinak udalerrri berri independente bat sortzeko udalerrri zati baten banatzea edo segregazioaren supostua ezabatzen du. LASAGABASTER katedradunaren iritziz, edozein beste testuingurutan, administrazioa arrazionalizatzeko helburuarekin araua egokia izango litzateke, baina, segregazio prozesu bat martxan dagoela jakinda arauaren bitartez hau geratzea herritarren kontrako neurria dela defendatzen du.⁸⁸ Bigarren aldaketa 6/2015 Foru Arauarekin ematen da, zeinak, aurreko arauan segregazio bidez herri independente bat sortzeko supostua barneratzeaz gain, honen inguruko prozesuaren hainbat alderdi xedatzen dituen.

⁸⁷ Kronologikoki desanexionatu izan diren 24 herriak hauek dira: Berriatua, Derio, Erandio, Loiu, Mendaro, Sondika, Zamudio, Lasarte-Oria, Astigarraga, Forua, Kortezubi, Murueta, Nabarniz, Baliarrain, Ikaztegieta, Orendain, Alzaga, Iurreta, Ajangiz, Alonsotegi, Arratzu, Gaztelu, Leaburu, Zierbena eta Ziortza-Bolibar.

⁸⁸ Vid. BREA, U. (2014). «Erabakitzeko eskubidea udal mailakoa ere bada», *Argia*, 2438. zk., 2014ko azaroaren 23a, 7 or.

Nahiz eta legediak Usansoloren segregazio prozesua ahalbidetu, segregazio prozesua arintzeko sorturiko Batzorde Paritarioaren izendapenean eta ondoren Usansoloren mugak zehazteko eran arazoak sortu izan dira, eta honen ondorioz, segregazio prozesua 3 urtez luzatu egin izan da. Gaur egun, segregazio prozesua blokeo egoera tekniko batean dagoela adierazten dute segregazioaren aldeko kideek, 2018ko uztailetik ez delako inolako bilerarik egin. Horren aurrean, Usansolo herri bihurtzea nahi duen aldea Arartekora zuzendu da, egoera aztertuz blokeari konponbide bat eman diezaion eskatuz. Ondorioz, Udalaren eta Foru Aldundiaren konpromezu ezaren aurrean, bere erabakiaren zain geratu beharko gara segregazioaren etorkizuna zein izango den ikusteko.

Azkenik, lanean zehar egindako matizazioa aipatu nahiko nuke, izan ere, hau SOSA WAGNER-ek eta DE MIGUEL GARCÍA-k *Creación, supresión y alteración de términos municipales* (1987) liburuan egindako hausnarketarekin bat dator. Hauek Euskal Herriko egoera nahasgarria dela adierazten dute, izan ere, Autonomia Estatutuaren arabera Autonomia Erkidegoari dagokio udal mugarteen inguruko eskumen eksklusiboa, “al margen de las competencias que tienen los Territorios Históricos respecto a este mismo aspecto cuando no excedan los límites de cada provincia” (10.1. art.). Ondorioz, autore hauek adierazten dute udal mugarteen inguruko aldaketei dagokionez Autonomia Erkidegoari dagokiola eskumena, ez Lurralde Historikoei, azken hauek eremu supramunizipalean baitaukate eskumena (Eskualdeak, Metropoli-eremuak eta Udalerrien Mankomunitateak)⁸⁹.

⁸⁹ Vid. SOSA WAGNER, F. Y DE MIGUEL GARCÍA, P. (1987). *Creación, supresión ...* op. cit., 605 or.

7. BIBLIOGRAFIA ETA ERREFERENTZIAK

ACOSTA SÁNCHEZ, J. (2009). «Aproximación a la problemática del municipio. Historia, constituciones y crisis actual», *Boletín de la Sociedad de amigos de la cultura de Vélez-Málaga*, 8. zk., 5-19 or.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORAGA, I. (1995). «Rasgos específicos de la segregación de municipios en los territorios forales», *Revista Vasca de Administración Pública - Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 41. zk., 351-370 or.

ALMEIDA CERREDA, M. (2015). «Un nuevo instrumento para el redimensionamiento de la planta municipal española: el convenio de fusión entre Ayuntamientos», *Istituzioni del Federalismo: Rivista di Studi Giuridici e Politici*, 2.

ALONSO MAS, M.^a J. (2014). «El nuevo régimen de las fusiones de municipios», en *Reforma del Régimen Local. La Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local: veintitrés estudios*, coordinada por M. J. Domingo Zaballos, Madrid: Thomson Reuters Aranzadi.

ÁLVAREZ MONTOTO, J. (2014). «La Incidencia de la Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local en la planta local española. La fusión voluntaria de municipios», *Revista de Estudios Locales*, Cunal, núm. 173.

AMENÓS ÁLAMO, J. (2013). «El elemento territorial del municipio en la Ley 27/2013, de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local», *Anuario del Gobierno Local 2013, Fundacion Democracia y Gobierno Local*, 1. zk., 49-65 or.

ARES FALCÓ, P.; ESCUDERO VILLAFÁFILA, R.; HERNÁNDEZ HERRERA, D. Y VÁZQUEZ NEGRO, F.J. (2010). *Problemas frecuentes en la Administración Local. Recopilación de supuestos prácticos*, Madrid: La Ley (Wolters Kluwer)

ANTELO MARTÍNEZ, A. R. (2013). «Fusiones de municipios: ¿prevalencia del derecho estatal en el régimen de adopción de acuerdos? Especial referencia al caso de los municipios de Ozas y cesuras en la provincia de A Coruña», *Revista de Estudios Locales*. Cunal, 155.

BARRANCO VELA, R. (1993). *Creación y segregación de municipios*. Madrid: Marcial Pons, Ediciones Jurídicas S.A..

BATISTA MEDINA, J.A. (2015). «Las Administraciones Públicas como organizaciones genéricas. El caso de los municipios españoles», *Reis: Revista de Investigaciones Sociológicas*, 149. zk., 1-30 or.

BAYONA I ROCAMORA, A. (2017). “La Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local y el Tribunal Constitucional: comentarios a las primeras sentencias”. *Cuadernos de Derecho Local*, 4. zk.

BLANCO, I.; GOMÁ, R. Y SUBIRATS, J. (2018). “El nuevo municipalismo: derecho a la ciudad y comunes urbanos”. *Revista de Gestión y Análisis de Políticas Públicas*, 20, azaroa, 14-28 or.

BREA, U. (2014). «Erabakitzeke eskubidea udal mailakoa ere bada», *Argia*, 2438. zk., 2014ko azaroaren 23a, 4-8 or.

BOIX PALOP, A. (2014). «Sentido y orientación de la Ley 27/2013 de racionalización y sostenibilidad de la Administración local: autonomía local, recentralización y provisión de servicios públicos locales», *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica (REALA) Nueva Época*, 2. zk., 2014ko uztaila-abendua, 27-47 or.

BURGUEÑO, J.; GUERRERO LLADOS, M. (2014). «El mapa municipal de España. Una caracterización geográfica» *Boletín de la Asociación de Geógrafos Españoles*, 64. zk., 11-36 or.

CALONGE VELÁZQUEZ, A. (2015). «La fusión de municipios, único instrumento de la Ley 27/2013, de 27 de diciembre, de racionalización y sostenibilidad de la Administración Local para la modificación de la planta municipal: una oportunidad perdida», *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica*. Enero, 42-53 or.
2015. DOI: <https://doi.org/10.24965/reala.v0iextra.10222>

CARBONELL PORRAS, E. (2018). «La alteración de términos municipales en la reforma local de 2013: crónica de un fracaso anunciado», *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica: Nueva Época*, 9. zk., 5-21 or.

_____. (2014). «Sobre la reforma local y las competencias municipales propias», *Revista Vasca de Administración Pública*, 99/100, (número especial en recuerdo y homenaje al Profesor Demetrio Loperena).

CASTELLS ARTECHE, J. M. (1983). «La nueva problemática de las alteraciones territoriales municipales», *Revista de Administración Pública*, 100-102. zk., 1983ko urtarrila-abendua, 2159-2186 or.

CELAYA IBARRA, A. (1985). *Derecho Foral y Autonómico Vasco*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

COPANO ORTIZ, L. (2018). «Autonomía Local, Organización Territorial y Segregación Municipal», *Revista de Estudios Andaluces*, 35. zk., 63-100 or.

DEPARTAMENTO REDACCIÓN DE CIVITAS (2010). *Legislación de régimen local*. Madrid: Editorial Thomson Reuters Aranzadi.

DOMINGO ZABALLOS, M.J. (2014). *Reforma del Régimen Local. La Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local: Veintitrés Estudios*. Madrid: Thomson Reuters Aranzadi.

DURÁN GARCÍA, F. J. (2016). *La fusión de municipios como estrategia*. Madrid: Ed. Dykinson.

ENDEMAÑO ARÓSTEGUI, J. M. (2005). «El municipio en la Comunidad Autónoma Vasca», *Iura Vasconiae*, 2/2005, 125-148 or.

FERNÁNDEZ TORRES, J. R. (2003). *La creación de nuevos municipios por segregación*. Valencia: Tirant lo Blanch.

FONT LLOVET, T.; VELASCO CABALLERO, F. Y ORTEGA ÁLVAREZ, L.I. (2006). *El régimen local en la reforma de los Estatutos de Autonomía*. Madrid: Centro de Estudios Políticos y Constitucionales.

FUENTETAJA PASTOR, J.A. Y FERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, C. (Coord.). (2012). *Manual de Derecho Local*. Madrid: Iustel Ediciones

LASAGABASTER HERRARTE, I. (1994). «Las Normas Forales: su naturaleza jurídica», ZZAA, *Cuestiones particulares del régimen foral y local vasco*. Oñati: HAEE-IVAP.

_____(1989). *El sistema competencial en el Estatuto de Autonomía*, Oñati: HAEE-IVAP.

LÓPEZ VILA, C. (1969). “La fusión e incorporación de Municipios en España”. *Revista de estudios de la vida local*, 162. zk., 265-292 or.

MEDINA GUERRERO, M. (2014). *La reforma del régimen local*. Valencia: Tirant lo Blanch.

MORELL OCAÑA, L. (1974). “*La Administración Local*” en *la España de los años 70*, III. Liburukia, Madrid: Moneda y Crédito.

_____(1987). «Las entidades locales, elementos integrantes de la organización territorial del Estado y de las Comunidades Autónomas», *Revista Española de Derecho Administrativo*, 55. zk., 325-352 or.

_____(1987). “Las fuentes del derecho local. Problemas generales. Competencias del estado y las comunidades autónomas”, *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica (REALA) Nueva Época*, 235-236. zk., 489-532 or.

PARADA VAZQUEZ, R. (2010). *Derecho Administrativo II, Organización y empleo público*, Madrid: Marcial Pons.

PONS-PORTELLA, M. (2016). «La población mínima de los nuevos municipios: estado de la cuestión tras la Ley de Racionalización y Sostenibilidad de la Administración Local», *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica (REALA) Nueva Época*, 5. zk., 2016 urtarrila-ekaina, ISSN: 1989-8975.

RAZQUIN LIZARRAGA, M. M. (2014). «La reforma local en la Comunidad Autónoma del País Vasco: la necesidad perentoria de una Ley municipal de Euskadi (1) », *Revista Vasca de Administración Pública - Herri-Arduralaritzako Euskal Aldizkaria*, 99-100. zk. berezia, 2014ko maiatza-abendua, 2505-2526 or.

RIVERO YSERN, J.L. (2014). *Manual de Derecho Local*. Madrid: S.L. Civitas Ediciones

RODRÍGUEZ MORO, N. (1975). «La incorporación de un municipio a otro y la segregación de parte de un término municipal para unirlo por razones de seguridad o conveniencia administrativa», *Revista de estudios de la vida local*, 185. zk., 119-127 or.

SÁNCHEZ MORÓN, M. (2011). *Derecho administrativo. Parte general*, Madrid: Tecnos Editoriala.

SOSA WAGNER, F. (2009). «Creación, fusión y supresión de municipios. El ejemplo alemán y la necesidad de un nuevo mapa municipal en el marco de las competencias de las comunidades autónomas», en Rodríguez Gonzalez, R. (dir.), *Reformar la administración territorial: municipios eficientes y viables*, Neibiblo, Oleiros, 69-98 or.

____ Y FUERTES LOPEZ, M. (2001). *Código de la Administración Local*, Pamplona: Aranzadi.

____ Y DE MIGUEL GARCÍA, P.; MARTIN MATEO, R. (1987). *Creación, supresión y alteración de términos municipales*, Madrid: Instituto de Estudios de Administración Local.

____ Y DE MIGUEL GARCÍA, P. (1986). «La alteración de términos municipales en el nuevo Derecho Local», *Revista de Estudios de la Administración Local y Autonómica*, 232. zk., 601-627 or.

VELASCO CABALLERO, F. (2009). *Derecho local. Sistema de fuentes*. Madrid: Marcial Pons, Ediciones Jurídicas y Sociales.

WOLLMANN, H. (2014). «La reciente reforma del gobierno local en España. Reflexiones desde una perspectiva comparada», *Cuadernos Manuel Giménez Abad*, 8, diciembre, 59-176 or.

XIOL RÍOS, J. A. (2014). «Jurisprudencia del Tribunal Constitucional referente al régimen local», *Cuadernos de Derecho Local (QDL)*, 36. zk., 216-227 or.

LEGEDIA

Barne legedia

Errege Dekretua, Bizkaia eta Gipuzkoako zuzentzaile politikoak goi-mailako buruzagi politiko izendatzen dituen, 1841eko urriaren 29koa (Gaceta de Madrid, 1841ko urriaren 29koa, 2576. zk.).

Udal Estatutua, 1924ko martxoaren 8koa (Gaceta de Madrid 1924ko martxoaren 9koa, 69. zk.).

Udal Legea, 1935ko urriaren 31koa (Gaceta de Madrid 1935ko azaroaren 3koa, 307. zk.).

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea, 1945ko uztailaren 17koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1945ko uztailaren 18koa, 199. zk.).

Toki Erregimenaren Oinarriak arautzen dituen Legea, 1953ko abenduaren 3koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1953ko abenduaren 4koa, 338. zk.).

Toki Erregimenaren Estatutuko oinarrien 41/1975 Legea, 1975ko azaroaren 19koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1975ko azaroaren 21koa, 280. zk.).

47/1978ko Legea, Toki Erregimenaren Estatutuko oinarrien 41/1975 Legea indargabetzen duena, 1978ko urriaren 7koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1978ko urriaren 11koa, 243. zk.).

Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoa, 1979ko abenduaren 18koa (Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala, 1980ko urtarrilaren 12koa).

27/1983 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Erkideen eta Lurralde Historikoetako Foru Organoen arteko harremanei buruzkoa, 1983ko azaroaren 25koa (Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala, 1983ko abenduaren 10ekoa, 182. zk.).

Toki Erregimenaren Estatutuko oinarrien 7/1985 Legea, 1985ko apirilaren 2koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1985ko apirilaren 3koa, 80. zk.).

Errege Dekretu Legegilea 781/1986, Erregimen Lokalaren materiaren inguruan indarrean dauden legezko xedapenen testu bateratua onartzen duena, 1986ko apirilaren 18koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1986ko apirilaren 22koa, 96. zk.).

2/1987 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzkoa, 1987ko otsailaren 11koa (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 1987ko otsailaren 20koa, 42. zk.).

8/1993 Foru Araua, Bizkaiko Udal Mugarteei buruzkoa, 1993ko uztailaren 7koa (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 1993ko uztailaren 8koa).

11/1999 Legea, Toki Erregimenaren oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Tokiko Gobernuaren garapeneko beste neurri batzuk aldatzen dituena, trafiko, ibilgailuen zirkulazioa, errepideen segurtasuna eta uraren arazoaren gaitan, 1999ko apirilaren 21koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1999ko apirilaren 22koa, 96. zk.).

57/2003 Legea, gobernu lokalerako modernizazio neurrien ingurukoa, 2003ko abenduaren 16koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2003ko abenduaren 17koa, 301. zk.).

9/2012 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzkoa, 2012ko abenduaren 5koa (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2012ko abenduaren 18koa, 241. zk.).

Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta jasangarritasunaren 27/2013 Legea, 2013ko abenduaren 27koa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 2013ko abenduaren 30koa, 312. zk.).

6/2015 Foru Araua, Bizkaiko Lurralde Mugapeei buruzko 2012ko abenduaren 5eko 9/2012 Foru Araua aldatzen duena, 2015ko martxoaren 25koa (Bizkaiko Aldizkari Ofiziala, 2015ko martxoaren 27koa, 62. zk.).

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2/2016 Legea, 2016ko apirilaren 7koa (Euskal Herriko Aldizkari Ofiziala, 2016ko apirilaren 14koa, 70. zk.).

Europako Erkidegoko Zuzenbidea

Toki Autonomiari buruzko Europako Karta, Estrasburgon 1985ko urriaren 15ean egindakoa (Estatuko Aldizkari Ofiziala, 1989ko otsailaren 24koa, 47. zk.).

EPAIAK

Konstituzio Auzitegiak emandakoak

KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 4/1981 Epaia, otsailaren 2koa.

KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 76/1988 Epaia, apirilaren 26koa.

KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 214/1989 Epaia, urtarrilaren 11koa.

KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 170/1989 Epaia, urriaren 19koa.

KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 214/1989 Epaia, abenduaren 21koa.

KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 103/2013 Epaia, maiatzaren 23koa.

KAE edo Konstituzio Auzitegiaren 118/2016 Epaia, ekainaren 23koa.

Auzitegi Gorenak emandakoa

AGE edo Auzitegi Gorenaren 2000/3878 Epaiak, 2000ko maiatzaren 10ekoa.

ESTATUKO KONTSEILUAREN IRIZPENA

EKI edo Estatuko Kontseiluaren 1356/93 Irizpena, 1993ko azaroaren 25ekoa, 1993ko Legezko Doktrinaren Bildumako 37. zk. marjinala.

8. TAULA, GRAFIKO ETA IRUDIEN AURKIBIDEA

IRUDIAK

1. Irudia: Udal administrazioaren egitura hierarkikoa	15
2. Irudia: Administrazio publikoaren erregimen juridikoaren mailaketa	23
3. Irudia: Udalerrien aldateten kasuak emateko supostuak	33
4. Irudia: Udalerrien aldateten kasuak emateko arrazoiak	38
5. Irudia: Batzorde Paritarioaren osaera	47

GRAFIKOAK

1. Grafikoa: Bizkaian 1983. urtetik gaur egunera arte segregatutako udalerrri kopurua.....	19
2. Grafikoa: 2014ko azaroaren 23ko kontsultaren emaitzak	43

TAULAK

1. Taula: 1983tik gaur egunera arte Bizkaian segregatutako udalerrriak	18
2. Taula: Batzorde Paritarioaren inguruko segregazio espedientean dauden dokumentuak	46
3. Taula: Usansoloren mugen inguruko segregazio espedientean dauden dokumentuak	50
4. Taula: Usansoloren biztanleria 2016. urtean.....	52